

DONOSTIAKO UDALA

2016

Aurrekontuak - 4. alea

Udaleko elkarteak



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Programakuntza, azterlanak eta aurrekontuak
Programación, estudios y presupuestos



Índice

1. Donostiako Sustapena, S.A.	6
2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.	11
3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	15
3.1. Negozio zifraren zenbateko garbia.	17
3.2. Pertsonen gastuak.	17
3.3. Beste ustiapen gastu batzuk	18
3.4. Higiezinaren amortizazioa	18
3.5. Ibilgetu ez finantzarioaren diru laguntzen eta beste batzuen egozpena	19
3.6. Besterentzeen eta beste eragiketa batzuen ondoriozko emaitza	19
3.7. Diru sarrera finantzarioak	19
3.8. Gastu finantzarioak	20
4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	24
5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa	29
5.1. Kultur Ekintza	30
5.2. Liburutegi zerbitzua	32
5.3. Festak	34
5.4. San Telmo Museoa	35
5.5. Antzerkia eta dantza	37
5.6. Zine unitatea	39
5.7. Musika	40



5.8. Baliabideak eta administrazioa	41
5.9. Komunikazio eta irudia	42
5.10. Produkzioa	43
6. Anoeta Kiroldgia, S.A.	49
7. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.	54
7.1. Zerbitzua, kalitatea eta bezeroaren arreta hobetzea.	54
7.2. Ingurumena: autobus ekologikoak eta irisgarriak	54
7.3. Tarifa sistema	55
7.4. Langileria eta antolaketa.	55
7.5. Berrikuntza	57
7.6. Komunikazio eta benchmarking ekintzak egingo ditu.	58
8. Donostia Turismo, S.A.	62
8.1. Eginkizuna	62
8.2. Ikuspegia	62
8.3. Aupada estrategikoak	62
8.4. Jardun plana	63
8.4.1. Aisia turismoaren kudeaketa	63
8.4.2. Negozio turismoaren kudeaketa	64
8.4.3. Helmugaren kudeaketa turistikoa	66
8.4.4. Pertsonen kudeaketa	67



Taulen aurkibidea

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak	7
2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	8
3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena	8
4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena	9
5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	10
6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak	11
7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarrerren ekonomi balioztapena	12
8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena	12
9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena	13
10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	14
11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	20
12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	21
13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	21
14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena	22
15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	23
16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak	25
17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	26
18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	26
19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	27
20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	28
21. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak	44
22. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	45
23. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena	45
24. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Gastuen azalpena	46



25. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	48
26. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.ren programa osagaiak	50
27. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	51
28. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	51
29. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	52
30. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	53
31. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren programa osagaiak	58
32. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	59
33. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	59
34. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	60
35. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	61
36. taula: Donostia Turismo, S.A.ren programa osagaiak	68
37. taula: Donostia Turismo, S.A.ren diru-sarrerren ekonomi balioztapena	69
38. taula: Donostia Turismo, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena	69
39. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena	70
40. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Diru-sarrerren azalpena	71



1. Donostiako Sustapena, S.A.

2016ko Aurrekontu-proposamenean, aurtengorako alderdi berezi batzuk jasotzen dira, aurreko ekitaldiei jarraipena ematearekin batera zenbait alorretan: berrikuntza eta talentuari eustea edo talentua erakartzea.

Ildo horretan, 2016ko aurrekontuan bereziki kontuan hartu dira hiriko sektore garrantzitsuenak, establezimendu ekonomiko eta enpleguaren aldetik begiratuta. Era horretan, bereziki elkarlana egin da txikizkako merkataritzako edo ostalaritza-sektoreko agente ezberdinekin, eta bereziki Hiriburutzaren inpaktua dela-eta. Horrez gain, kontuan izan dira sektore horiek berritzeko eta hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak.

Modu horretan, sektore horien jarduerarekin batera, sozietateak zenbait proiektu bultzatzeko apustua egin du; hau da, hirian ezagutzaren ekonomiara gehiago bideratutako edo balio erantsi handiagoko eta epe ertain eta luzera lehiakorragoa izateko ehun ekonomikoa bultzatuko dutenak.

Horrela, sektore emergenteak eta tokiko klusterrak Donostiako ekonomia bultza dezaketen sektore bezala hartuta, lehendik landutako sektoreekin lanean jarraituko da (ikus-entzunezkoak eta digitala, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna, teknologia asistiboak, surfa eta nekazaritzako elikagaiak), eta horiei eratu berria den klusterra gehituko zaie; hots, modaren klusterra.

Halaber, ekonomia suspertzeko plan espezifikoa garatuko da, eta, bertan, hiriak bizi duen une ekonomikoarekin (hazkundera eta krisia gainditzea) bat datozen neurriak jasoko dira.

Auzo arteko lurralde-kohesioaren barnean, jadanik garatutako jarduerak erreferentzia gisa hartuko dira; esate baterako, Altzan burututakoak, eta horiei Loiola - Txomin - Martutene bezalako beste batzuk gehituko zaizkie, europar programaren esparruan, edota Amaran edo Egian garatuak.

2016ko lankidetza publiko-pribatuaren barnean, sektore horien arteko lankidetza indartzeko ahaleginak egingo dira. Horrela, hibridazio handiagoa eta lerrokatze garbia bilatuko dira balio erantsi handiagoko proiektuen aldeko apustua egiten duten bestelako ekimenekin. Enpresa ezberdinen arteko lankidetza ez ezik, enpresa horien eta ikerketa-zentroen eta hiriko ezagutzaren arteko lankidetza ere bultzatuko da, eta horien guztien eta lurraldeko agente nagusien artekoa.

Ildo horretan, garrantzi berezia izango dute smart city deiturikoan bil daitezkeen ekimen guztiek; ekimen horietan, lurraldeak eta gobernantzak garrantzi berezia dute, eta sozietateak duela urte



asko hasitako lankidetzak publiko-pribatuaren kudeaketaren aldeko apustua beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa ere izango da.

Eremu horiekin batera eta horiekin lerrokatuta, sozietateak Rozanes-Talent House ikerlarien egoitza kudeatuko du eta haren erantzukizunpeko 6 enpresa-zentroak, gehienak izaera sektorialekoak. Horrez gain, smart city-en eremuan giltzarriak diren ekimenak bultzatuko ditu; esate baterako, Telekomunikazioetako Azpiegituraren Kudeatzailea, funtsezko baliabidea hirian zuntz optikoa hedatzeko edo haririk gabeko azpiegituran (wifi-aren estaldura garrantzitsua). Halaber, sozietatea arduratuko da Ubako aterpetxea kudeatzeaz, eta, era horretan, Europako Kultur Hiriburutzaren urtean 2015ean izandako okupazio-igoera garrantzitsuari eusten edo hori hobetzen ahaleginduko da.

Aurrekontuan, Donostiako Plan Estrategikoaren Bulegoaren funtzionamendurako behar diren baliabideak ere mantenduko dira.

Horretarako, 2016ko aurrekontuan 11.700.000 eurotik gorako baliabideak sartu dira, eta Udalaren ekarpena 5.526.134 eurokoa izango da.

1. taula: Donostiako Sustapenaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Sustapena	11.784.152,65	100,00
Guztira	11.784.152,65	100,00



2. taula: Donostiako Sustapenaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.104.334,00	9,37
4	Transferentzia arruntak	8.019.984,65	68,06
5	Ondare-sarrerak	2.659.834,00	22,57
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		11.784.152,65	100,00

3. taula: Donostiako Sustapenaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	2.518.767,65	21,37
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	5.086.535,00	43,16
3	Finantza-gastuak	40.000,00	0,34
4	Transferentzia arruntak	2.958.850,00	25,11
6	Inbertsio errealak	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	1.180.000,00	10,01
Guztira		11.784.152,65	100,00



4. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	1.890.885,65
160.01	Gizarte-aseguruak	549.342,00
160.04	Elkarkidetza	37.628,00
162.01	Langileen prestakuntza	33.045,00
161.01	Beste hainbat gizarte-laguntzak	7.867,00
1. kapituluaren guztizkoa		2.518.767,65
2. kapitulua		
227.15	Profesional kontratazioa eta ohiko zerbitzuak	1.780.239,00
227.17	Ez-ohiko azterketa teknikoak	812.200,00
226.14	Gainontzekoentzat kurtsoak	128.486,00
201.01	Alokairuak, mantenimendua eta hornidurak	1.711.846,00
224.01	Aseguruak	32.700,00
226.03	Argitalpenak, komunikazioa eta ordezkartza gastuak	71.424,00
222.99	Komunikazioak	51.475,00
226.05	Bidaiak, ostatu gastuak eta dietak	72.143,00
226.06	Lanaldietan eta beste gertakizunetan antolakuntza eta parte hartzea	270.940,00
226.99	Beste hainbat gastu txiki	37.737,00
225.01	Tributuak	117.345,00
2. kapituluaren guztizkoa		5.086.535,00
3. kapitulua		
369.01	Interesak	40.000,00
3. kapituluaren guztizkoa		40.000,00
4. kapitulua		
481.01	Sariak, diru-laguntzak eta bekak	2.958.850,00
4. kapituluaren guztizkoa		2.958.850,00
9. kapitulua		
932.02	Zorren amortizazioak	1.180.000,00
9. kapituluaren guztizkoa		1.180.000,00
Guztira		11.784.152,65



5. taula: Donostiako Sustapena. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 310.99	Zerbitzuak ematea	775.022,00
I 390.02	Bezeroei eragindako gastuen sarrerak	329.312,00
	3. kapituluaren guztizkoa	1.104.334,00
4. kapitulua		
I 430.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	5.526.133,65
I 400.01	Estatuko ekarpena	8.000,00
I 410.01	Eusko Jaurlaritzaren diru-ekarpena	1.075.950,00
I 416.01	Foru Aldundiaren diru-ekarpena	378.983,00
I 493.01	Europa Batasunaren diru-ekarpena	1.030.918,00
	Bestelako diru-laguntzak	
	4. kapituluaren guztizkoa	8.019.984,65
5. kapitulua		
I 540.01	Alokairugatik sarrerak	1.779.634,00
I 540.02	Hotelen kanona	880.000,00
I 560.01	Kontu korronteko interesak	200,00
	5. kapituluaren guztizkoa	2.659.834,00
Guztira		11.784.152,65



2. Balneario de la Perla del Océano Sozietatea, S.L.

2016an Sozietateak aurreko urtetako ekintzekin jarraituko du, bere aurrekontua mantenduz. Sarreren aldetik, bakarrik bere ondarearen alokairuak kudeatuz hornitzen da eta gastuetan aldiz, ondarearen mantenua, administrazio eta finantza gastuak ditu.

6. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Balneario de la Perla del Océano Sozietatea	596.180,00	100,00
Guztira	596.180,00	100,00



7. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	11.400,00	1,91
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
5	Ondare-sarrerak	584.780,00	98,09
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		596.180,00	100,00

8. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatearen gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	0,00	0,00
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	454.287,00	76,20
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	129.873,00	21,78
9	Finantza-pasiboak	12.020,00	2,02
Guztira		596.180,00	100,00



9. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
2. kapitulua		
227.99	Kanpoko zerbitzuak	304.660,00
225.01	Zergak	149.627,00
	2. kapituluaren guztizkoa	454.287,00
8. kapitulua		
880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	129.873,00
	8. kapituluaren guztizkoa	129.873,00
9. kapitulua		
932.02	Epe luzerako maileguen itzulpena	12.020,00
	9. kapituluaren guztizkoa	12.020,00
Guztira		596.180,00



10. taula: Balneario de la Perla del Océano Sozietatea. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 390.02	Bezeroei eragindako gastuen sarrerak	11.400,00
	3. kapituluaren guztizkoa	11.400,00
5. kapitulua		
I 540.01	Alokairugatik sarrerak	584.780,00
	5. kapituluaren guztizkoa	584.780,00
Guztira		596.180,00



3. Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa

1. Oharra: Erakundearen 2016ko aurrekontuen baitan sartzen diren dokumentuak

Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak (aurrerantzean, “Erakundea”)

2016rako prestatu duen aurrekontuak honako dokumentu hauek hartzen ditu bere baitan:

- a) Galera eta Irabazien aurreikuspen kontua.
- b) Aurreikuspen Balantzea
- c) Memoria, jarduera arrunten finantzaketaren defizita erakusten duen egoerarekin.
- d) Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera.
- e) Zorpetzearen gaineko eranskina.
- f) Langileen gaineko eranskina.
- g) 2016-2019 lau urtekoan egingo diren inbertsioen eta haien finantzaketaren gaineko eranskina.

2. Oharra: 2016-2019 lau urtekoan Erakundeak egingo dituen inbertsioak eta beraien finantzaketa.

2016rako aurrekontuan 2016-2019 lau urtekorako Jarduera, Inbertsio eta Finantzaketen Plan bat sartzen da, non denbora tarte horretan aurreikusten diren sustapen berrietarako inbertsioak eta inbertsio bakoitzari dagokion finantzaketa jasotzen diren.

Printzipioz, ez da espero aldaketarik Eusko Jaurlaritzaren laguntza finantzarioen gaineko legeetan, eta, beraz, jasoko diren diru laguntzen zenbatekoetan ere ez.

Inbertsioak direla-eta Administrazio Kontseiluak onartu beharreko ordainketa eta konpromisoen urtez urteko zenbatekoak hauek dira:

2016	7.746.474,00 €
2017	15.886.936,00 €
2018	12.317.240,00 €
2019	0,00 €
GUZTIRA	35.950.650,00 €

Erakundeak jarraitu duen finantzaketa politikari eutsita, beharrezkoa izango litzateke Donostiako Udalari 16.249.850,00 euroren abalak eskatzea, ondoren dagozkion maileguak formalizatzeko. Abalak, xehakatuta, hauetarako lirateke:

- » 162 alokairuko BOE Txomin-Enean (1. A fasea), 9.525.600,00 €-AN



- » 37 alokairuko BOE Jolastokietan, 2.599.250,00 €-an
- » 55 bizitoki Ulian, 4.125.000,00 €-an

Pertsona nagusientzat Intxaurrondon egingo diren 55 bizitokiak eta Berio-Goyenechen (Etxegi) egingo diren 48 BOEak finantzatzeko maileguk badute jada Udalaren abala. Formalizatu diren mailegu horietarako lau urtekoan eskuragarri edukitzea aurreikusten diren zenbatekoak 3.601.000,00 eta 2.259.800,00 eurokoak dira, hurrenez hurren.

2016-2019 laurtekoan Eusko Jaurlaritzatik jasoko diren diru laguntzen zenbateko osoa 13.840.000,00 euro dira.

3.Oharra: 2016ko jarduera arruntei dagozkien diru sarrera eta gastuak.

Erakundearen inbertsio jarduera guztia babes ofizialeko etxebizitza eraikinak sustatzera bideratuta dago, ondoren babespeko alokairuan jartzeko.

2016ko ekitaldian Erakundeak honako higiezinak kudeatuko ditu alokairuan: 1.289 BOE, gazteentzako 283 bizitoki, nagusientzako 44 apartamentu eta 330 garaje. Eta aurrekoez gain, nagusientzako 197 apartamentuak, logela eskubidearen erregimenean kudeatzen direnak, eta Erakundearen Alokabide programaren bitartez kudeatzen diren 322 etxebizitzak ere sartzen dira higiezinaren parke horretan.

Bestalde, 2011ko apirilaren 29an Udalbatza Osoak egindako ohiko bilkuran erabaki zen Erakundeak hartzea bere gain ordura arte PARVISAREN esku egondako hiriaren birgaitzerako eta eraberritzaerako jarduerak. Bilera horretan, halaber, erabaki zen PARVISA erakundea desagitea eta Erakundeak haren eskubide eta betebeharrak guztiak hartzea.

Horregatik, Erakundeak, Donostian birgaitze integraturako gunetzat eta gunen degradatutzat deklaratu dauden aldeetarako Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak izapidetzeaz aparte, Donostiako udal mugarte osoko egoitza eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko Udalak dagokion Ordenantza bitartez emango dituen diru laguntzak ematea kudeatzeaz ere arduratzen da. 2016an emango diren diru laguntzen gehienezko zenbatekoak Donostiako Udalaren aurrekontuko dagokion kontu sailean agertuko dira.

Bukatzeko, Udalbatza Osoak 2015eko uztailaren 30ean hartutako erabakiz, onartu zen Donostiako Hirigintza Kudeatzeko Udal Lantegia ordura arte garatzen ari zen jarduerak kudeatzeko modua aldatzea, handik aurrera jarduera horien ardura Erakundearen esku pasatuta.



Kudeaketa horrek guztiak, bai eta sustapen lanak ere, gastuak eta diru sarrerak eragiten dituzte, eta horiek Erakundearen galerak eta irabazien aurreikuspen kontua osatzen dute.

3.1. Negozio zifraren zenbateko garbia.

Higiezinaren alokairua da Erakundearen jarduera nagusia, eta jarduera hori da, baita ere, behin eta berriz merkatuko diru sarrerak eragiten dituen.

Alokairuen prezioak, batez beste, hauek dira: 290 euro BOE-erako, 243 euro apartamentu-erako, eta 62 euro (BEZa sartu gabe) garaje-erako.

Errenta sozialez gain, kontuan hartu dira, baita ere, errentariak txandaka aldatzen direla eta horrek behartzen duela higiezinak hutsi izatera denbora tarte luzean edo motzean, berriro etxea bete arte, horrek, aldi berean, denbora tarte horietan errentarik ez kobratzea ekarrita, nahiz eta gutxieneko kontsumoak ordaindu behar diren. Txandakatze horiek, kalkuluen arabera, %3 izaten dira batez beste BOE-etan eta %5 zuzkidurako bizitoki-erako, aurreko urteko ratioak pixka bat hobetuta.

2016an, alokairu errentak ez dira handituko, 2015erako inflazioa ia nulua izatea kalkulatzeko baita.

Horrek denak egiten du 2016rako aurreikusten diren errentamenduen diru sarrerak 5.317.000,00 eurokoak izatea.

Atal honetan, halaber, IBI zergaren bidez berreskuratzea espero diren zenbatekoak jasotzen dira, bai eta errentariei edo errentarien komunitateei egokitu arren Erakundeak ordaintzen dituen beste gastuak ere. 2016an 544.000 euro jasotzea espero da lehen kasuan, eta 952.000 euro bigarrean.

3.2. Pertsonen gastuak.

Donostiako Hirigintza Kudeatzeko Udal Lantegia xurgatu ostean, Erakundeak plantillan izango dituen lanpostuak 22tik 26ra pasatuko dira.

Ordainsariak kalkulatzeko 2010eko soldaten taula hartu da kontuan, 2009ko soldatatik abiatuta, eta %0,3 eta paga lineala gehituta kalkulaturik, eta Administrazio Kontseiluak 2010eko abenduren



23an onartutako deskontuak kenduta. 2011. urtetik 2015. urtera bitartean ez da ordainsarietan inolako igoerarik izan KPlan oinarrituta, baina 2016rako soldatak %1 igotzea espero da.

Kontuan hartuta aurrekoa, 2016rako aurreikusten diren ordainsari gordinek 1.068.965,22 euro egiten dituzte, eta karga sozialen kontu sailak guztira 328.098,12 euro egiten ditu, barruan honako kontzeptu hauek daudela:

Enpresaren konturako gizarte aseguratza	286.098,12 €
Elkarkidetza	17.000,00 €
Gizarte ekintza	14.000,00 €
Bizitza eta istripuetarako aseguru kolektiboa	3.250,00 €
Prestakuntza gastuak	1.000,00 €
Lan arriskuen prebentzioa	6.750,00 €

3.3. Beste ustiapen gastu batzuk

Babes ofizialeko etxebizitza parkeari eustea eta berankortasuna dira zerbitzu publiko hau ematean arreta berezia egitea eskatzen duten bi gai nagusiak.

Kanpoko zerbitzuen epigrafearen barruan aurreikusitako gasturik ezaugarrienak hauek dira:

Konponketak eta zaintze lanak	1.038.536,90 €
Hornidurak	689.000,00 €
Garbiketak	164.000,00 €
Aseguru primak	150.000,00 €
Zerbitzu profesional independenteak	140.000,00 €
Komunitateen gastuak	49.000,00 €

Zergen kontu sailaren barruan, ondasun higiezinaren gaineko zerga da nabarmenena, 491.200,00 euroko zenbatekoarekin. Gainerakoan hainbat tasa sartzen dira.

Eragiketa komertzialengatiko horniduretan urtebete baino gehiagoko berankortasun saldoak sartzen dira, hau da, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenago igorri eta oraindik kobratu ez diren ordainagiriak. 2015erako aurreikusten da ordainagiriaren %6 geratuko dela ordaindu gabe.

3.4. Higiezinaren amortizazioa

Erakundearen ia ibilgetu osoa higiezinaren inbertsioak dira, eta horiek irizpide lineal bati jarraituta amortizatu behar dira bere bizitza baliagarri osoan zehar.



Kontuan izanik 2016an alokatzeko moduan egongo diren ia promozio guztiak eta PARVISAk utzitako ibilgetu osoa, amortizazioetarako zuzkidurek 2.720.000,00 euro egiten dituzte guztira.

3.5. Ibilgetu ez finantzarioaren diru laguntzen eta beste batzuen egozpena

Erakundeak diru laguntzak jasotzen ditu Eusko Jaurlaritzatik, itzuli beharrik gabe, denbora tarte jakin batean babespeko alokairuan jarri behar diren babes ofizialeko etxebizitzak sustapenerako. Diru laguntza horiek galera eta irabazien kontuari egotziko zaizkio, alokairuan jarritako higiezinatarako kalkulaturako bizitza baliagarriaren denboraren arabera, hau da, 50 urtean. Hala, 765.000,00 euro dira 2016rako aurreikuspen kontuan diru sarrera moduan egotzi beharrekoa zenbatekoa.

Bestalde, urtero jasotzen da Udalak desegin den PARVISA erakundeari ibilgetua erosteko emandako 73.000,00 euroren diru laguntza.

3.6. Besterentzeen eta beste eragiketa batzuen ondoriozko emaitza

Atal honetan jasotzen dira aurreko ekitaldietan lursail, salgai zeuden babes ofizialeko etxebizitza eta lokalen azalera eskubideen lagapenagatik kobratutako kanonak, 149.000,00 euroren baliokoak, aurreikuspen kontuari diru sarrera moduan egozteko lagapenak irauten duten urte kopuruaren arabera.

3.7. Diru sarrera finantzarioak

Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen interesen zatia jasotzen du. Alokairuko etxeen sustapena finantzatzeko diren mailegu kualifikatuei dagozkien interesak dira horiek. 2016ko aurrekonturako aurreikusita dago diruz laguntzen diren interes horien zenbatekoa 744.304,99 euro izango direla.



Altxortegiko soberakinak errentagarri bihurtzeko egiten diren epe jakinerako gordailuek sortarazitako interesak ere jasotzen dira. Interes horiek 50.000 euro egingo dituztela jotzen da.

3.8. Gastu finantzarioak

Kreditu erakundeekin izaten diren epe luzerako zorrek sortarazten dituzten interesak jasotzen dira. 1.583.395,52 euro egotzi zaie interes horiei.

Logela eskubidea dutenekiko zorrek ez dute interesik sortarazten, inflazioa nulua dela kalkulatzen baita.

4. Oharra: Donostiako Udalaren diru laguntzak.

Azaroaren 21eko 1463/2007 Errege Dekretuak, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duenak, bere 4.2 artikuluan jasotzen du batez ere merkatuaren araberako diru sarrerekin finantzatzeko diren enpresa erakunde publikoek oreka finantzarioaren egoeran onartu beharko dituztela beren aurrekontuak.

Proposamen gisa onartzeko aurkezten den 2016ko Galera eta Irabazien Aurreikuspen Kontuaren arabera, ustiapen gastuekin alderatuta (pertsonek gastuak, ustiapeneko beste gastu batzuk, eta higiezinaren amortizazio gastuak) errentamenduen diru sarrerei dagokien portzentajea %87 da.

Kontuan izanik Donostiako Etxegintza batez ere merkatuaren araberako diru sarrerekin finantzatzeko dela, bere Galera eta Irabazien Aurreikuspen Kontua oreka finantzarioan egon dadin beharrezkoa du Donostiako Udalaren diru laguntza bat jasotzea, 128.690,77 euroko diru laguntza, zehazki. Diru laguntza horrekin Udalak dituen babes ofizialeko etxebizitzetan aplikatzen den errenta sozialen politika finantzatzeko litzateke.

Era berean, Donostiako Udalak 2.000.000,00 euroko partida izendatu beharko du bere aurrekontuetan, udal mugarte osoko egoitza eraikinen eta etxebizitzaren errehabilitaziorako dagokion ordenantza bitartez emango diren diru laguntzetan erabiltzeko, horren kudeaketa Erakundearen esku egotea adostu baita.

11. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa	17.902.609,09	100,00
Guztira	17.902.609,09	100,00



12. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.506.000,00	8,41
4	Transferentzia arruntak	872.995,76	4,88
5	Ondare-sarrerak	5.367.000,00	29,98
6	Inbertsio errealen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	406.304,00	2,27
8	Finantza-aktiboak	2.410.139,33	13,46
9	Finantza-pasiboak	7.340.170,00	41,00
Guztira		17.902.609,09	100,00

13. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	1.397.063,34	7,80
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	2.862.536,90	15,99
3	Finantza-gastuak	1.583.395,52	8,84
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	7.746.474,00	43,27
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	4.313.139,33	24,09
Guztira		17.902.609,09	100,00



14. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	1.068.965,22
160.01	Gizarte-kargak	328.098,12
	1. kapituluaren guztizkoa	1.397.063,34
2. kapitulua		
211.01	Eraikinen konponketa, mantentzea eta artapena	1.038.536,90
221.01	Hornidurak	689.000,00
224.01	Aseguru-primak	150.000,00
225.01	Tributuak	515.700,00
	Garbiketa lanak	164.000,00
	Komunitate gastuak	49.000,00
226.99	Beste zerbitzuak	116.300,00
227.15	Zerbitzu profesional independenteak	140.000,00
	2. kapituluaren guztizkoa	2.862.536,90
3. kapitulua		
332.01	Epe luzeko zorren interesak	1.583.395,52
	3. kapituluaren guztizkoa	1.583.395,52
6. kapitulua		
682.01	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	7.746.474,00
682.01.02	Adinakoentzako 55 apartamendu Intxaurren alocatzeko	1.851.304,00
682.01.03	48 babes ofizialeko etxebizitza Berio-Goienetxan alocatzeko	2.259.800,00
682.01.04	162 babes ofizialeko etxebizitza Txomin-Enean alocatzeko (1. Zatia A)	3.201.120,00
682.01.06	37 babes ofizialeko etxebizitza alocatzeko. Jolastokieta	79.250,00
682.01.07	Ulia	295.000,00
682.01.08	Amara kalean etxebizitzak	60.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	7.746.474,00
9. kapitulua		
932.02	Maileguen amortizazioa	4.313.139,33
	9. kapituluaren guztizkoa	4.313.139,33
Guztira		17.902.609,09



15. taula: Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 390.01	Hainbat diru-sarrera	1.506.000,00
	3. kapituluaren guztizkoa	1.506.000,00
4. kapitulua		
I 410.01	Maileguen korrituei, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	744.304,99
I 430.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	128.690,77
	4. kapituluaren guztizkoa	872.995,76
5. kapitulua		
I 540.01	Etxebizitza eta aparkalekuen alokairua	5.317.000,00
I 560.02	Gordailuen interesak	50.000,00
	5. kapituluaren guztizkoa	5.367.000,00
7. kapitulua		
I 710.01.01	Adinekoentzako 55 apartamentu Intxaurrondon. Alokairu babestuari eta laguntza teknikoari Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza	51.304,00
I 710.01.02	Ulia. Eusko Jaurlaritzaren emandako diru-laguntza	355.000,00
	7. kapituluaren guztizkoa	406.304,00
8. kapitulua		
I 880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	2.410.139,33
	8. kapituluaren guztizkoa	2.410.139,33
9. kapitulua		
I 932.02.02	Adinekoentzako 55 apartamentu Intxaurrondon. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	1.800.000,00
I 932.02.03	48 babes ofizialeko etxebizitza Berio-Goienetxen alokatzeko. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	2.259.800,00
I 932.02.04	162 babes ofizialeko etxebizitza Txomin-Enean alokatzeko (1. Zatia A). Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	3.201.120,00
I 932.02.03	37 babes ofizialeko etxebizitza alokatzeko. Jolastokieta. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza duen mailegua	79.250,00
	9. kapituluaren guztizkoa	7.340.170,00
Guztira		17.902.609,09



4. Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.

2016. urtean, ekonomikoki azken urteotako emaitza onak mantentzea espero dugu, halere, errausketekin alderatuz, lurperaketen jaitsiera sumatu daiteke (2015rako 752 gorpuen lurperaketa espero dira, 519 errausketa eta 219 errautsen lurperaketa).

Gainontzean, neurrizko aurrekontua egin dugu, ikuspegiak errealistak dira eta, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko asmoz, beharrezkotzat jotzen diren gutxieneko hobekuntzak gauzatuko dira hilerrietan. Beste urteetan bezala, sozietateak, hala ere, ez du galerarik izango gastu hauen ondorioz.

8. urtez, fiskal-ordenantzaren prezioak ez dira aldatzen.

2016an 500.000 euroko dibidendoa banatzea espero da.

Onbideratutako egitura ikus daiteke balantzean: laneko kapital positiboa eta emaitza positiboak ere.

Zaintza-lanei dagokienez, gure kasa moldatzen saiatzen gara ahalik eta gehien.

Diru-Sarrerak

Errausketak eta lurperaketak gutxi gorabehera diru-sarreraren %50 dira. Urtero hilobien titularrek ordaintzen duten hilerrien mantenimendu tasa %30 inguru eta hilobien garbiketa zerbitzuak, marmoldegi lanak, hilobien alokairuak eta bestelako zerbitzuak beste %20a.

Gastuak

Gastuen kapituluari dagokionez, 2016an Polloen diren asfaltatu gabeko kaleak asfaltatzea aurreikusi da, horretarako 90.000 euroko aurrekontuan sarturik. Hilobien titularren eskaera da, gaur egun kale horiek hartxingazkoak izanik.

Errausketen igoera kontuan izanik eta errautsen hilobiratzearen konpetentzia dela eta, aukera berriak aztertzea beharrezkoa da. Haien artean, hilerrian errautsen lorategi bat izateko aukera aztertzen ari gara. Badira zenbait herri aukera hau eskaintzen dutenak eta, gure ustez, eskaini beharreko zerbitzua dugu hau errautsak hirian edo hiriaren inguruan ez sakabanatzeko.

Garratzintsu diren beste gastuen artean, ohikoak diren marmoldegi lanak, hilobien eta bulegoen garbiketak eta lorategi lanak ditugu.

2016an ere webgunearen berrikuntza aurkeztea espero da, bertan zenbait zerbitzu berri izanik, hala nola, hilobi eta hildakoen kokapena edo bere balio artistiko edota kulturalarengatik



garrantzia duten lekuen bisita-gida. Titular diren familiekin harremanetan jarri gara, onarpena oso ona izan da eta laster argitaratzea gustatuko litzaiguke.

Pertsonalari dagokionez, azken urteotan pertsonalaren murrizketa izan da. Egoera honetan, 2016rako 6 hilabeterako beste langile baten kontratazioa aurreikusi da oporrak egiteko eta zerbitzuaren kalitatea mantentzearen.

Honekin batera, soldata igoerei dagokienez, Udaletxeak hartutako erabakiak ezarriko ditugu (%1eko igoera).

16. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.	1.491.972,05	100,00
Guztira	1.491.972,05	100,00



17. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	1.488.972,05	99,80
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
5	Ondare-sarrerak	3.000,00	0,20
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		1.491.972,05	100,00

18. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	531.466,93	35,62
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	577.021,62	38,68
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	383.483,50	25,70
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		1.491.972,05	100,00



19. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileriaren gastuak	405.151,29
160.01	Gizarte-kargak	126.315,64
	1. kapituluaren guztizkoa	531.466,93
2. kapitulua		
221.01	Hornidurak	120.315,62
201.01	Errentamenduak	14.856,00
211.01	Konponketak eta artapena	203.600,00
227.15	Kanpoko zerbitzuak	223.800,00
224.01	Aseguru primak	11.900,00
226.03	Publizitatea eta propaganda	2.300,00
225.01	Tributuak	250,00
	2. kapituluaren guztizkoa	577.021,62
8. kapitulua		
880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	383.483,50
	8. kapituluaren guztizkoa	383.483,50
Guztira		1.491.972,05



20. taula: Polloe, Donostiako Hileta Zerbitzuak S.A. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 310.03	Jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak	1.480.972,05
I 300.01	Salmentak/ Ventas	8.000,00
	3. kapituluaren guztizkoa	1.488.972,05
5. kapitulua		
I 560.01	Kontu korronteko interesak	3.000,00
	5. kapituluaren guztizkoa	3.000,00
Guztira		1.491.972,05



5. Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa

Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren helburua da Udalak kultura eta jaien arloan dituen eskumenak aurrera eramatea, modu zuzen eta deszentralizatuan. Hortaz, erakundeari dagokio Donostiako Udalaren eskumenekoa den kultura arloaren plangintza, eratzea eta kudeaketa, bai eta jai jardueren sustapena eta antolakuntza ere. (Donostia Kultura Estatutuak)

Urteetan egindako lana sendotuz eta etorkizunera begira jarritz osatu dira Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren 2016rako aurrekontuak beti ere Estatutuetan bildutako helburua betetze aldera.

Orain arte herritarren babesa jaso duen kultura eta jaien eskaintzari eusteaz gain datorren urteak erronka berria du: Europako Kultur Hiriburutza. Berez, Donostia Kulturak urtean zehar egiten duen eskaintza indartzea esan nahi du alde batetik eta ekimen berrietan parte hartzea bestetik. Dena dss2016eu Fundazioarekin elkar lanean. Aurrekontuetan ahalegin berezia eskatzen du Europa osoan Kultur Hiriburu izateak sorkuntzan, ekoizpenean eta zabalkundean. Donostia Kulturak hirian eratuko diren ekitaldietan urteetan metatutako ezagutza jarriko du. Etorkizunera begirako inbertsioa izango da Donostiak duen kultur eskaintza aberasteko eta nazioartean hiriaren ikusgarritasuna areagotzeko balioko duena. Apustu honetan Donostia Kultura ardatza izango da 2016an bildutako ondarea etorkizunean kudeatuko duelako.

2016a urte berezia izateaz gain Kulturaren arloan ekimen berriak ditugu inguruan (Tabakalera, Euskal Liburutegi Digitala, Irakurketa Publikoko Euskal Sarea e.a.) elkar lanerako bideak eskatu eta ahalegin bereziak behar dituztenak. Eta kulturak beste edozein arlok bezala etengabeko hobekuntza eta berrikuntza saiakera eskatzen du.

Bizi dugun egoera ekonomikoa kontutan hartuta eta bete behar ditugun helburu nagusiak begi aurrean ditugula osatu ditugu 2016rako aurrekontu mugatu eta orekatuak. Herritarren zerbitzura egindako aurrekontuak dira eta auzoz-auzo herritarrek sortutako ekimenak kontutan hartzen dituztenak. Kultur sorkuntza eta ekoizpena ardatz hartu eta helburu nagusi argia: herritarren kultur prestakuntza bultzatzea eta festarako eta aisirako bidea ematea.

Xede hori goiburu eta bizi dugun garaia kontutan hartuta Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoan apustu garrantzitsuak honako hauek dira: pertsonak, baliabideak, eskaintza eta gizarteratzea.



- 1) Pertsonak. Lanpostuen gaurkotzea herritarrei eskaintzen diegun zerbitzuaren mesedetan.
- 2) Baliabideak. Publikoari irekitako 21 eraikinak zaindu eta mantentzeaz gain, urteetan bildutako ondarea (funts bibliografikoak, San Telmo Museoaren obrak e.a.) kudeatu behar ditugu horrek guztiak suposatzen duen gastu finko altu bati erantzunez.
Finantziazio bide berriak landuko dira. Donostiako Udalaren ekarpena da oraindik diru-iturri nagusia baina ahalegin berezia egingo da eskaintzen ditugun zerbitzuetan, alokairuetan, ekimenetan bide berriak jorratzeko bai erakunde publiko zein pribatuekin.
- 3) Eskaintza. Zerbitzu eskaintza (liburutegiak, kultur etxeak , Museoa) indartzeaz gain programazioan ahalegin berezia herritarren kultura arloko eta jai giroko proposamenak betetzeko eta arrakasta duten jaialdiei eusteko: 51. Heineken Jazzaldia, Donostikluba, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema, Literaktum e.a. Hau guztiaz gain 2016 Kultur Hiriburutzaren programazio berezia.
- 4) Gizarteratzea. Eskaintza guzti honen gizarteratzea eta era berean herritarrek irizten diotena eta eskatzen dutena aintzat hartzea da Donostia Kulturaren komunikazio estrategian ardatz nagusia. Baita hiriko beste kultur ekimenekin batera inguruari eta nazioarteari hemen dagoen eskaintza zabaltzea ere.

Aurrekontua (sarrera nahiz gastuak) egun Donostia Kulturak duen egituran oinarrituta dago. Zerbitzuak eta eskaintzak zuzenean sortu eta gauzatzen dituzten unitateak: Kultur Ekintza, Liburutegi Zerbitzua, Festak, San Telmo Museoa, Atzerkia eta Dantza, Zinea eta Musika. Eta eskaintzak sortzen dituzten unitateei zerbitzua ematen dietenak: Pertsona eta Baliabideen kudeaketa, Komunikazioa eta Irudia eta Ekoizpena.

5.1. Kultur Ekintza

Donostiako Kultur Etxeak kudeatzen dituen zerbitzu honen helbururik nagusien artean kultur eta gizarte esku-hartzea eta kultur ohituren hedapena daude, horiek guztiak koordinatzea irizpide handia izanik.

Kultur etxeetan dauden gertutasun zerbitzuen aniztasuna herritarren eta auzoen elkarteen beharren isla da. Kultur etxeek, diziplina askotako jarduerak eta zerbitzuak antolatzen dituzte



urtean zehar, Donostiako udaleko edo Eusko Jaurlaritzako beste sailekin elkarlanean: Haurtxokoak eta Gaztelekuak, Kzguneak, +55,...

Datorren urtean zenbait zerbitzuetan programazioa eta kudeaketaren aldetik aldaketak egongo dira. Adibidez, Gizarte Ongizatearekin batera garatutako +55 ekimena koskortzen ari da azken urte hauetan, eta, ia kultur etxe guztietara hedatuko, eta hala, adineko pertsona gehiagori iritsiko aisialdiko jarduerak eta aholkularitzan parte hartzeko aukera.

Larrotxeneko Bideo tailerra, Casareseko Irrati tailerra, eta Egia eta Intxaurrendoko Musika Gelak dira 2016an eskainiko diren beste berezitu zerbitzu batzuk, non kultur diziplina hauen zaleek bere asmoak garatzeko aukera izango duten, baliabideak eskuratuz eta ikastaroak, saioak, kontzertuak, eta beste zenbait ekimen bideratuz.

Kultur Etxeek beren auzoetan oso funtzio garrantzitsua betetzen dute, gizarte eta kultur elkarrekin eta kolektiboekin ekimenak aurrera eramaten eta jardueren antolaketetan eta dinamizazioan laguntzen. Lankidetzak aktiboa bermatzeko, baliabideak ezinbestekoak dira, batez ere auzoetan kultur etxeen helburuen artean gertutasuna eta kultur dinamizazioa daudelako.

Ikastaroei dagokionez, urtero 4.200 partaide baino gehiago matrikulatzen dira kultur etxeetan eskaintzen diren ikastaroetan, eta horrek, bistan da, sekulako jende fluxua sortzen du kulturaren inguruan. Ikasleek euren proiektuak aurrera eramateko Kultur ekintza zerbitzuak bere baliabideak ere euren esku uzten ditu: irratan, bideoan, dantzan, antzerkian, tailer irekiak....

Esan dugun bezala, badaude beste programa batzuk kultur etxe guztien artean antolatzen direnak eta herritarren artean oso harrera ona jasotzen dutenak. 2016ko Hiriburu Kulturala dela eta, zenbait programen datak aldatuko dira, beste batzuk itxuraldatuko eta zabaldu egingo dira molde eta egiteko modu berriak saiatuz:

- » **Poltsiko Antzerkia:** datorren urtean XXV. edizioa otsailean egingo dugu (orain arte, maiatzean egin izan da). Azken urteetako lan ildo arrakastatsuari segida emanez, euskarazko sorkuntzak bultzatu nahi duen Poltsiko Sorkuntza lehiaketa ere indartuko dela azpimarratzen dugu. Datorren urtean bi sari izango dira, jaialdian kalitatezko programazioa are gehiago bermatzeko.
- » **Literaktum Jaialdia:** aurtengo edizioak berrikuntzak ekarri ditu eta 2016an jarraituko direlakoan lan egingo dugu. Alde batetik, programa hazi egin da, bai jardueren aldetik



baita Literaktumen parte hartzen duten kideen aldetik. Eta ildo horretatik jarraitu nahi da.

Kultur Etxeak eta Liburutegi Nagusiaz gain, Koldo Mitxelena Kulturuneak, San Telmo Museoak, 2016 fundazioak eta Liburu-denden Elkartek parte hartzen dute programaren antolaketan, jarduerak proposatuz, egoitzak egokituz eta bere komunikazio bideak eskainiz. Ezaugarri hauek dituen horrelako jaialdi batean komunikazio estrategia sendoa ezinbestekoa da, eta behar den arreta emateko eta komunikazio digitalerako lana kudeatzeko pertsona batekin kontatuko dugu datorren urtean.

- » **Antzerkia Kalean:** Urtero eta auzoetako jaiak aitzaki hartuta, kultur etxeek antzerki jarduerak antolatzen dituzte jai batzordeekin batera. Programa hau zeharo errotuta dago gure hirian eta Kultur Ekintza zerbitzuak bere gain hartzen ditu koordinazio zereginak.
- » **Abesbatzen Astea:** Tolosako Ekinbide Etxearekin batera garatutako programa hau 2015ean ez dugu aurrera eraman aurrekontu arazoak zirela eta. 2016an berreskuratu nahiko genuke eta hitzarmen baten bidez 5-6 emanaldi egiten dira urrian-azaroan. Kultur Etxeak kontzertuen ekoizpenaz arduratzen dira eta Kultur Ekintza zerbitzutik, berriz, koordinazioa.

2016ari begira ere badaude beste bi programa non Kultur Ekintzak partaide aktiboa izango duen:

- » **Olatu Talka:** kultur etxeek auzoetan sortutako proposamenak biltzen dituzte Kultur Ekintzatik eta hauen eta programa osoaren jarraipena egiten du.
- » **Emusik:** Musika Eskolak sortutako programa honetan kultur etxeak egoitzak izango dira eta ekoizpen lanak aurrera eramango dituzte, euren baliabideak jarritz ere. Kultur Ekintzatik koordinatuko da lana.

5.2. Liburutegi zerbitzua

2016ko aurrekontuak aukera emango du helburu nagusia ziurtatzeko: zerbitzua irekitzea eta arreta egokia ematea, 17 liburutegiko sarearen bidez, eta jarduera aretoa egoki kudeatzen jarraitzea.



Tabakalerako Ubik Mediateka zabaltzeak eragina izango du, zalantzarik gabe, hiriko gainerako liburutegietan. Horregatik, premiazkoa da hiriko liburutegi zerbitzuak berrantolatzea eta, gainera, udal sarea egoki posizionatzea.

2016. urtean, Eusko Jaurlaritzarekin adostutako helburua beteko dugu: Eusko Jaurlaritzaren on-lineko irakurketa publiko sarean sartzea, aurretiaz hitzarmena sinatuta.

Liburutegi zerbitzuak fusioa egitea aurreikusi du 2016. urtearen hasiera alderako. Migrazioaren kostuaren zati handiena Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen badu ere, zenbait karga udal aurrekontuak hartuko ditu bere gain. Zehazki, hauek dira: automaileguak egokitzeko kostuak, katalogazio lanak eta bi sistema informatiko erabiltzen ditugun bitartean arreta egiten duten langileei laguntza jartzea.

2016rako helburu zehatzak hauek dira:

- » Honako jarduera hauek egitea: Liburuaren Eguna, Pentsamenduaren Poesia, Liburutegiaren Eguna. Literatura solasaldiak, ipuinaren orduak.
- » 2016ko proiektuak bultzatzea, liburutegi zerbitzua landuko dutenak, zehazki, eta Donostia Kulturarenak, oro har. Bereziki aipatzekoa da “2016 irakurketak – Wikipedia, Other Words”.
- » Euskal Idazleen Elkartea eta Galtzagorri elkarteekin lankidetza hitzarmenei eustea. Jarduera hauek egiten ditugu haiekin: Poesia orduak eta haurrentzako irakurketa digitalaren elkarte.
- » Bilboko Frantses Institutuarekin lankidetzen hastea, frantsesezko irakurketa elkarte bat sortzeko.
- » Eduki digitalak sortzea, digitalizaio lanak egitea.
- » Liburutegi Nagusiaren azterketa.
- » Arlo hauetako lan teknikoei ekitea: katalogazioa, funts berria eta historikoa, dohainak antolatzea, aldizkariak uztea. Paperean dagoen fitxategia informatizatzea.
- » Zerbitzuaren blogak sustatzea: Liburu Dantza eta Liburutegien ahotsa, eta Twitter eta Isuu sare sozialak.
- » Eskoletan irakurketa bultzatzea; udarako irakurketa digitalaren eta paperezkoaren gida bat argitaratzea eta eskoletarako bisitaldi didaktikoak egitea.



- » Donostiako toki bilduma bereziki zaintzea materialak eskuratzeko garaian.
- » Gabriel Celaya idazlea eta Espainiako gerra zibila oroitzeko ekitaldiren bat antola dadin bultzatzea.
- » “Galdetu, liburutegiak erantzuten du” online programarekin lankidetzan jarraitzea euskarazko txandan.
- » Sektoreko biltzarretan liburutegien partaidetza bultzatzea (liburutegi publikoen biltzarra, ADLUG, liburutegi digitalen biltzarra nahiz beste edozein foro).

5.3. Festak

Donostia Kulturako Festen unitateak, zerbitzu publikoa den neurrian, 2016erako hainbat helburu planteatu ditu. Helburuetako batzuk Donostia hiriko berezko festa-jarduera batzuen antolakuntzarekin daude erlazionatuta (danborrada, kaldereroak, Aste Nagusia, su artifizialak eta abar), eta beste helburu batzuk hiriko auzoetan eta kaleetan herritarren askotariko elkarteek antolatzen dituzten jarduerekin erlazionatuta daude.

Honako helburu hauek ezarri ditugu 2016erako:

- 1) Herritarren elkarteei laguntzea beren jai-proposamenak garatzeko.
 - » Horretarako, jai-jarduerak bide publikoan egiteko beharrezkoak diren baimenak lortzeko bidea erraztuko da.
 - » Eta bideragarri diren jarduerak ondo garatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak koordinatu, informatu, kudeatu eta abar egingo dira.
- 2) Jai-eskaintza dibertsifikatzea, ahalik eta publiko objektibo zabalenera iristeko eta festa barneratzaileagoak lortzeko.
- 3) Baliabideak erabiltzean eraginkortasun handiagoa lortzeko lan egitea, eta, ahal den neurrian, gaur egungo baliabideak kontserbatzen, berrerabiltzen eta eraldatzen laguntzea.
- 4) Finantzaketa-iturri berriak bilatzea, unitatetik antolatutako jarduerak mantentzeko aukerak erraztera bidean.



- 5) Herriarren elkarteekin eta beste hainbat elkarterekin lankidetzan jardutea intereseko jardueren koordinazioan, plangintzan eta ospakizunetan; horretarako, baimenen kudeaketa egingo da eta askotariko laguntzak bilatuko dira, jarduera horiek bide publikoan ospatzeko bidea errazteko.

Udal zerbitzu desberdinen arteko lankidetzaz azpimarratzea (berdintasuna, euskara, ingurumena, gizarte-ongizatea, gazteria), udal intereseko politikak sustatzeko eta ezartzeko (genero-berdintasuna, euskararen erabileraren normalizazioa, birziklapena, kontsumo arduratsua, hiri lagunkoia, irisgarritasuna, mugikortasuna, barneratzailetasuna eta abar).

5.4. San Telmo Museoa

San Telmo 2016ra begira ezarritako helburua 2011n ireki zenetik eskaintzen duen kultur, ondare, hezkuntza eta aisialdiko eskaintzari eusten jarraitzea bada ere, 2016an Donostia Europako Kultur Hiriburua izango denez, ekimen horrekin bat egitea ere helburu nagusietako bat izango da.

Publikoei dagokionez, aurreko urteetako helburu bera mantentzen da, hau da, bisitari kopurua 120.000 inguruan sendotzea, eta Kultur Hiriburutzak tarteka jende andana ekarriko balu, gehiago jasotzeko prestatzea. Kopuru horretan museora eta bertan antolatzen diren erakusketetara hurbiltzen diren bisitariak eta kultur, hezkuntza eta aisialdiko jardueretan parte hartzen dutenak barne hartzen dira.

Programazioari dagokionez, aurreko urteetan hasitako ildo beretik jarraituko da lanean. Hain zuzen, batetik museoko erakusketa iraunkorrari lotutako jardueren eskaintza eta bestetik aldi baterako erakusketa handiak, nagusiki dss2016eu fundazioarekin elkarlanean garatutakoak.

Horrela, hiru erakusketa handi aurreikusten dira. Lehena, Kultura Hiriburutzaren inaugurazioarekin batera aurkeztuko dena, urtarilaren 22an, **“1966 |Gaur konstelazioak | 2016”** izenekoa, garai hartako eta egungo euskal artisten lanak aurkeztuz. Bigarrena, eta hau ere dss2016eu fundazioarekin elkarlanean, **“Bake Ituna”** izenekoa eta 2013 urtean aurkeztutako erakusketaren segida. Erakusketa horretan, gatazkaren hainbat ikuspegi aurkeztuko dira, Donostiako eta Gipuzkoako beste hainbat museo eta gunerekin batera. Eta hirugarrena, **“GU TALDEA”** izenekoa, 1930eko hamarkadan Donostia izan zen sormen artistikoari buruz erakusketa.



Horiekin batera, tamainaz txikiagoak izango diren eta laborategian aurkezten ditugun honako erakusketak aurreikusi dira, besteak beste: Ikimilikiliklik (ekimen hura oroitzuz), Arkeologiari buruzkoa (Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean), Nilo, Haurbanistak eta Nazioarteko Zinemaldiarekin batera urtero aurkezten dugun erakusketa.

Erakusketa-proiektu guztiekin batera eskaintzen den jarduera didaktikoen zein hedapen-jardueren programazioaz gain, programazio egonkorrago bat landu da. Beste erakunde batzuekin batera garatu da programazio hori, hala nola Berdintasuna, Lankidetzeta eta Tolerantzia Sailekin, Unibertsitatearekin, Globernance zentroarekin eta 2016an bereziki dss2016eu-rekin batera garatutako proiektu gehiago eskainiko dira, halaber.

Programazio zabal hori garatu ahal izateko, Udalak egiten duen ekarpenaz gain, patronoek egindako ekarpena eta handitzen ari diren alokairuekin lortutako diru-sarrerak erabiliko dira.

Hainbeste ikusten ez bada ere, garrantzi bera du funtsen dokumentazio, zaharberritze, biltegiatze eta kontserbaziorako egiten den lanak eta ahalegin ekonomiko handia eta giza baliabideen dedikazio garrantzitsua egitea eskatzen du. Ia bilduma gehienak Gordailura eraman dira eta funtsak birkokatzeko eta azken katalogazioa egin arteko prozesu teknikoa burutzeko lanekin jarraitzen da. Era berean, aurrerapausoak ematen jarraitzen dugu ENSIME katalogoaren birmoldaketan. -Eusko Jaurlaritzaren museoaren funtsen katalogo kolektiboa- eta hainbat proiektu garatu dira bildumak ondo dokumentatzeko eta kaltetuen dauden piezak zaharberritzen jarraitzeko.

Obrek ere pisua izaten jarraituko dute gurean. Nagusiki, eta aurrekontuei begira, Proiektuak eta Obrak ataletik bideratuko badira ere, zenbait mantenu-lan museoak bere gain hartuko ditu.

Erakundearen barruan, museoaren kudeaketa-sistema bateratua (euromus) garatzen jarraitzen dugu, jada normalizatuta dagoen salmentarekin, eta aurrera egin dugu datu estatistikoak jasotzeko lanetan; izan ere, datu horiek oso garrantzitsuak dira museoaren ebaluazioa egiteko oro har, eta euskararen eta berdintasunerako planak eta museoaren hobetzeko planak ezartzeko bereziki.

Amaitzeko, Urgull mendian garatutako jarduerari dagokienez, azken urteetako jardueraren dinamikari eutsi zaio eta pixkanaka eraikinaren instalazioak hobetzen ari gara. Halaber, kanoien



bilduma eta Gazteluko beste espazio batzuk zaharberritzen eta horiek kontserbatzeko neurriak ezartzen jarraituko da.

5.5. Antzerkia eta dantza

Aurrekontuaren irizpideak eskena-programazio orekatua aurkeztera behartzen gaitu. Orekak proposamen komertzialtasun eta proposamen garaikide eta/edo autore-proposamen artekoak. Oreka hauen ondorioak ikusgai izan daitezen txarteldegietatik jasotako diru-iturrietan eta oreka hauei esker, aurrekontuen itxiera ere orekatua eta egokia lor dezagun. Hots, Erakundeak ontzat eman dituen aurrekontuak ere asetzea. Hala ere, Antzerki eta Dantza Unitateak bilakaeran jarraitzen duenez planteamendu berriak lantzen gero eta gehiago. Krisi ekonomikoak sakonki astindu du sektore hau eta guztien baliabideen egoerak mugatua jarraitzen du, baita bertako aurrekontuena ere, kanpo dirulaguntzak murrizten jarraitzen baitute. Hortaz, lehenik eta behin, unitatearen aurrekontua doitzearen ondorioz baina, bestalde, sektorean positiboki eragiteko asmotan, hausnarketa orokor baten emaitzetan oinarrituko dira urteko jardura eta bere helburuak:

- » Oinarrian eragiteko lana, sentsibilizazio-ekintzak eta ikusle-entzule berriak sortzeko lana indartu, sustapen-politiken azterketa.
- » Lankidetzak sendotu: artista eta kudeatzaileen artean, talde eta antzokien artean, sektore pribatu eta publikoaren artean. Egitasmoak sustatu.
- » Sektorea babestu: ekoizpenetan lagundu edo parte hartuz, azpiegiturak lagatuz, egonaldien dinamika sustatuz.
- » Finantzazio-bideak bilatzea ezinbesteko helburu iraunkorra da egitasmo guztietan, osotasunean edo parte batean bederen. Era berean aurrekontuaren kontrol zorrotza inoiz baino beharrezkoago bihurtu da. Testuinguru berean, dantza antzerkia baino garestiagoa denez, salbuespenak salbuespen, aurrekontuaren babes handiagoa behar du.
- » 2016an Donostia Europako Kulturaren Hiriburua izateak berriazko programazioa, berrikuntza zertzeladekin, egungoa, artearen nazioartekotasuna eta ardatz tematiko konkretuetan eduki konprometituak dituen diseinatzea eskatzen digu. Honela herritarren artean berrikuntza eta erakargarritasun pertzepzio bat lortuko da. Programazio bat, azken



finean, kontrolaturiko arriskua bere gain hartuta, dantzaren eta bereziki antzerkiaren nazioartekotasuna eta azaleratze sortzailea babesteko erronka planteatzen duena. Egoera honen aurrean eta 2016ko programazioa dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu bultzada kuantitatibo nahiz kualitatiboa ematea aipatutako programazioari, horretarako beharrezkoa delarik aurrekontuan handitzea, egonkortasun izaera batekin, hurrengo ekitaldietan orain ezarri nahi ditugun oinarriak sendotzeko aukera eman dezan.

Aurretik aipatutako guztia eta ondorengo helburuak burutzea, ardura duen lan taldearen dinamizazioa:

- » DFeria: Feriaren finantziazioa tamaina egoki eta arrazoizkoan ziurtatzeko lan egin eta arte-mailari eta emaitzei eutsi (salmentak, publikoaren erantzuna,...)
- » Testuinguru berean, dantzak antzerkiak baino kostu haundiagoak dituenez, arte eszenikoetarako ikusle berriak sentsibilizatu eta ekarriko dituzten programa berrietan lan egin.
- » Euskarazko antzerkigintza sustatzea eta hartarako laguntza ematea, baita oro har euskal antzerkigintza eta dantza ere: haurrentzako nahiz helduentzako euskarazko ohiko programazioa; euskal produkzioko antzerki eta dantza ikuskizunen ehuneko handia programatzea; DONOSTIA ANTZERKI SARIA helduentzako euskarazko ikuskizun onenari; martxoaren 27a Nazioarteko Antzerki Eguna euskaraz; produkzio esparru propioa beste antzoki batzuekin.
- » Ikusle berrientzako planaren garapena: ikuskizunen sustapen pertsonalizatua; intereseko taldeekin lan egitea; publikoen prestakuntzarako programak egitea; "Eskolatik antzerkira" proiektua;...
- » Ikusleen prestakuntzan eta sentsibilizazioan aurrera egin: dantzan, Miarritzeko Malandain Balletarekin elkar lanean, eta beste programa eta egitasmoen bidez; antzerkian Baionako Scène National antzokiarekin elkar lanean, eta beste programa eta beste egitasmoen bidez.
- » 2016 Kultura hiriburutzari begirako lan ildoak. Zentzu honetan, Hiriburutzako Bulegoarekin lankidetzan, babesa behar duten programak sortu dira. Vaiven, Kimu, Dramaturgia Antzerkiz, Mugalariak, Katalina Erauso Pastoral bezalako programa edo



proiektuak, hauek guztiak 2016 Bulegoarekin eta beste kide batzuekin lankidetzan. Dantzaren eta antzerkiaren sentsibilizazioa eta formakuntza eta antzez-sorkuntzarekin harremana duten lerro guztiak sendotzen dituzten proiektuak.

5.6. Zine unitatea

2016 urterako aurrekontuan igoera txiki bat eskatzen da 2015etik iritsitako programa berriak (Zinema euskaraz ikastolentzat), beste batzuen eraldaketa (Nosferatu Tabakalerara pasatzea) edo babesleen galerari (Beldurrezko Astea) aurre egiteko. Era berean, 2016 Fundazioarekin egindako jaialdietan aurkeztutako proiektuek lan-karga handitzea suposatuko dute eta honi gastuak gaineratuko zaizkio, Fundazioaren aldetik eginiko ekarpenetatik at.

Unitatetik zuzenean antolatutako programak:

- » NOSFERATU programa. 2015eko urritik ziklo honetako emanaldiak Tabakalerara igaro dira eta Kieslowskiri dedikaturiko zikloa 2016ko maiatzean amaituko da. 2016ko urrian hasteko programa berri batean ari gara pentsatzen Euskal Filmotekarekin batera, honen inguruko bi libururen argitalpena (euskara zein gazteleraz) barne izango duelarik. Filmotekarekin programazioan egindako lankidetzak honek hitzarmen bat ere ekar lezake, beren beste edukien programazioa baimentze aldera.
- » GIZA ESKUBIDEEN XIV. ZINEMALDIA. Udalaren Giza Eskubideen atalarekin batera egiten den zinemaldia apirilaren 15etik 22ra bitartean ospatuko da. 2016ko Bakearen Itsasargiarekin batera programa batzuetan batera egingo dugu lan, hara nola Europar Gazte Epaimahai bat eta Giza Eskubideen Zinemaldien Sareko Ezohiko Biltzarra.
- » FANTASIAZKO ETABELDURREZKO ZINEMAREN 27. ASTEA. Gure helburua programazioaren kantitate eta kalitate maila mantentzea da, 2015ean neurri batean galdu delako (erakusketa gutxiago egon dira). 2016rekin Misterioaren Itsasargiaren Proiektuarekin jarraitu dugu eta Japoniari eskeinitako programa berezi batekin, Eu-Japan Fest Fundazioaren lankidetzarekin. Datak urriak 26 – azaroak 4
- » FILMAZPIT 2016. Programa honen kudeaketan lanean jarraituko dugu ziurrenik, Zineuskadirekin eta bere ekarpenarekin.

Eragile desberdinekin lankidetzan egindako jarduerak:



- » DOCK OF THE BAY. Musika-dokumentalei buruzko zinemaldia. 2016ko urtarrilaren 9-16 inguruan Antzoki zaharrean. Qualia elkartearekin eginda.
- » MENDITOUR. Club Vasco de Camping elkartearekin. Maiatzean Antzoki Zaharrean.
- » SURFILM FESTIBALA. Ekainaren 25-26 inguru.
- » ZINEA EUSKARAZ ikastolekin. Goizeko emanaldiak Antzoki Zaharrean Tinko elkartearekin.
- » BANG BANG ZINEMA. Zine komertziala jolas-ekimen bezala hedatzeko Elkartea. Bi hilean behineko emanaldia Antzoki Zaharrean, arrakasta handiarekin orain arte.
- » ZINE ZIKLO ANTIMILITARISTA. 2016rekin lankidetzan, martxoaren bukaera aldean Antzoki Zaharrean.

5.7. Musika

2016ean atal honek antolaturiko jardueri dagokienez, ondorengoak bereizi daitezke:

- » Victoria Eugenia Antzokiaren eta Antzoki Zaharrean musika-programazioa, urtariletik ekainera eta urritik abendura. Lankidetzan jarraitzeko ildoak garatu nahi da euskal diskoetxeekin, musika-hedapenerako erakundeekin, ospe eta tradizio aitortuko elkarteekin, musikari eta konpositoreen taldeekin eta tokiko balio berriak hedatzeko plataforma berriei.

Era berean, beste musika-estilo batzuen agerpena sendotu nahi da, eta horretarako, espazio eszenikoa tokiko sustatzaile eta eragileei “lagatzeko” prozedura bat jarraituko da. Lehentasuna emango zaio ikuskizun berrien “ekoizpenari” eta eskaintza nahikoa eta nahikoa anitza lortzea dira helburuak, oraindik ere.

Adarra Saria banatuko da, Musikaren Nazioarteko Egunarekin bat etorritik (ekainak 21), Euskal Musikaren baitan ibilbide artistiko baten bikaintasuna azpimarratzeko.

- » 51. Heineken Jazzaldiaren programazioa eta ekoizpena. Uztailaren 21etik 25era izango da, azken urteetan hain ezagun egin den eskemari jarraituz: aurreko edizioetan jada antolatutako Jazz Band Ball doako inaugurazio-festa antolatuko da berriro ere. Gastuen eta diru-sarreraren arteko oreka mantentzea izango da 2016rako helburu garrantzitsuenetako bat.



50. Jazzaldiak bertaratutako guztiengan oso oroitzapen onak utzi zituen eta aurreko urteko edizio honek utzitako asebetetze maila mantentzen saiatu beharko dugu.

- » Donostia Kulturaren musika-programazioaren aholkularitza eta koordinazioa, beste unitate batzuk garatzen dituzten musika-programazioko programa desberdinetan.
- » Musika-programazioa Kursaal Eszenaren Musika Herrikoiaaren atalean, urtariletik ekainera eta urritik abendura.
- » Urte osoan antola daitezkeen interes orokorreko beste musika-jarduera batzuk.
- » 2016ko Programazio zehatzari dagokionez, Hiriburutzako bulegoarekin lankidetzan, hainbat ikuskizun eta ekitaldi proposatzen dira, Victoria Eugenia Antzokiko programazioan txertatuko direnak (euskal artista eta atzeritarren arteko lankidetzak, gure sortzaileak europar produkzio artistikoen zirkuluetara hurbiltzeko asmotan), Kursaal Eszena (disziplinarteko esperientzia aintzindariak euskal artista eta profesionalek zuzenduak), Heineken Jazzaldia (Europako jazz musikari gazteen topaketa) edo ohizkanpoko ikusentzunezko izaerako ekitaldietan.

5.8. Baliabideak eta administrazioa

Atal honetako aurrekontuak, halaber, atalaren beraren beharrak asetuko ditu baina, bereziki, erakundearen antolakuntza-egiturak behar bezala funtzionatzeko behar diren zeregin guztiak eraginkortasunez bete daitezten eta, halaber, ekintza orokorrak, erakunde osoari begira daudenak, ezar daitezten ziurtatuko du.

Arlo Ekonomikoaren erronka nagusiak aurrekontuaren jarraipen eta kontrol zorrotza izaten jarraitzen du, dagoeneko zehaztasun handiz egiten dena. Bestalde, jasotako Europar diru laguntza handitu den heinean, horien kudeaketa eta kontrola ere atalaren eginbeharretan badu eragina.

Unitate honetako aurrekontuan garrantzia dute diru laguntzen kudeaketak eta izapidetzeak. 2016an ez da igoerarik aurreikusten Donostia Kulturak ematen dituenetan. Aldiz, beste hainbat kontzeptutan gastu aurreikuspena handitu egin da 2016rako. Batetik, Jardueren Gainera Zerga, egun ordaintzen dena egokitu da. Bestetik, erakundeak erabiltzen dituen zenbait lan poltsa agortuta daude, eta ohiko funtzionamendua bermatzeko, berriak egin beharrean gaude, eta horrek, aurrekontuko zenbait partidetan eragina du.



Giza Baliabideen Arloan iazko erronkari eutsiz, eta erakundea Enpresa Erakunde Publiko bihurtu zenetik burutzeke zegoen Donostia Kulturaren organigrama ezartze bidean, lanpostuen balorazioak urte osoko asetze beharra izango du. Helburu hori egikaritze aldera aurrekontuan isla izan du. Halaber, Euskara Planetik eratorriko den prestakuntzak eta, horrek, sortuko dituen langileen ordezkapen beharrek ere aurrekontuan eragiten dute.

Entitate publikoen diru-sarrerei dagokionez, 2016ean gehituko direla balioztatu da.

5.9. Komunikazio eta irudia

Unitate honek 2016rako dituen lehentasunak hauek dira:

- » Hiriko kultur agenda urte osoan zehar ahalik eta hobekien eta modurik zabalenean hedatuko dela ziurtatzea, Donostia Kulturaren unitateen irudia bateratzeko eta Donostia / San Sebastián irudia egituratzeko funtzioa betetzea.
- » Donostia Kulturako 90.000 bazkideen asebetetze maila areagotzea, beraiekiko harremana Unitate honen bitartez kudeatzen delarik.
- » Berezko CRM (Customer relationship management) sistema bat garatzea erabiltzailek gure zerbitzu eta programak hobeto ezagutzeko.
- » Kultura eragileen arteko koordinazioa, erakundeen gertutasuna eta ikusle berriak lortzea erraztuko duten bide berriak irekitzea.
- » 2016rako aurreikusitako komunikazio euskarriei (liburuxka eta beste euskarri fisikoak, web atariaren mantenua, ikus-entzunezkoak...) dagozkien lehiaketa prozesuak zuzentzea.
- » dss2016eu-ren programazioaren “bozgorailu” gisa aritzea, bai eta erakunde biek kudeatutako programen hedatze informatiboa indartzea, bataren zein bestearen parte-hartzea edozein delarik ere.
- » Europako Kultura Hiriburutzak suposa lezakeen ondarea bermatuko duten komunikazio plataformak sortzea, ondoren Donostia Kulturak bereganatu eta sendotu ditzan.
- » Prentsa Bulegoaren lanen hobekuntza lanak (urtean 200 prentsaurreko baino gehiagorekin).



Zentzu honetan, helburu hauek lortzeko egin beharreko esfortzu ekonomikoa Donostia Kulturako atal bakoitzak eskainitako programazio eta zerbitzu kulturalen menpe dago, harreman zuzena baitago programatutako ekintza kopuruaren (eta hauen kalitatearen) eta hauek duten komunikatzeko beharren artean, bai eta dss2016eu-rekin lankidetzan ere.

Ohiko publizitatean inbertitzeko (asteko agendan txertatzen diren iragarkiez at) daukagun muga kontutan izanik beste euskarri batzuetan (liburuxka, e.a.) egiteko ahalegina areagotzea, komunikabideen nahiz biztanleen aurreko hedaketa handiagoa egitea aurreikusten da. Eta, bereziki, egun garatzen ari garen bide digitaletan esfortzu handiagoa egitea.

Lehentasunezko helburu bihurtu da babesleak eta lankidetzak lortzea, zaintzea eta mantentzea. Are gehiago komunikabideen kasuan, izan ere, horiek ere babesle dira eta sail honi dagokio zuzenean horiekin harremanetan egotea. Eta, bide honi dagokionez, Unitate honetatik 2016an zehar bide berriak irekitzen saiatuko gara.

5.10. Produkzioa

Atal honen jarduera nagusia ondorengo ekitaldien logistika teknikoa antolatzea da:

- » Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean eta San Telmo Museoan (museo-arlokoak ez diren jarduerak) egiten diren ekitaldiak.
- » Erakundeak antolatzen dituen jaialdi nagusiak (Jazzaldia, Dferia, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Giza Eskubideen Zinemaldia)
- » Olatu Talkaren jarduera batzuen ekoizpena Kultur Ekintza eta Festak atalekin batera.
- » Hiriburutzaren Bulegoko Produzio Zuzendaritza 2015eko irailetik 2016ko abendura.

Hiriburutzatik aparte atal honek 800 ekoizpen inguru ekoizten ditu.

2016ko Produzio Gastuen aurrekontuari dagokionez, gehikuntza bat aurreikusten da 2016ko Hiriburutza dela eta, honek eraikinen intalazioen ohiko kontsumoa ere handiagotzea suposatuko duelarik. Araudi arazoak direla eta bi antzokietako klimatizazio mantenu kontratuak luzatu beharra izan dugu, bai eta beste kontratu teknikoren bat ere haietako batean. Era berean, argindar tarifiket igoera bat izan dute eta FCCko hileroko fakturak ere igoera bat izan du (2.100 € hilean) Udalarekin egindako kontratuaren berrikuspena dela eta. Azkenik, garbiketa zerbitzuak datorren



urtean igoera bat izango du, orain arte Donostiako Zinemaldiaren bulegoak izan direnak Donostia Kultura hasiko delako erabiltzen.

Beste erakundeentzat ekoizpen zerbitzuak egiten jarraituko dugu, beti bezala, baina lan horregatik sarreretan igoerarik izateko aurreikuspenik gabe:

- » KURSAAL ESZENAREN kontzertu guztien produkzioa (musika klasikoa eta herri-musika).
- » MUSIKA HAMABOSTALDIKO kontzertu guztien produkzioa Kursaal, Victoria Eugenia Antzokian eta San Telmo Museoan. Eta beste ekitaldi zehatz batzuk.
- » NAZIOARTEKO ZINEMALDIAREN produkzio-koordinazioa Victoria Eugenia Antzokian.
- » 2016ko Hiriburutzaren Produkzio-Zuzendaritza
- » Bestelakoak.

21. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa	27.696.407,22	100,00
Guztira	27.696.407,22	100,00



22. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	4.430.874,55	16,00
4	Transferentzia arruntak	22.107.117,47	79,82
5	Ondare-sarrerak	408.415,20	1,47
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	750.000,00	2,71
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		27.696.407,22	100,00

23. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	11.886.180,21	42,92
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	14.546.644,70	52,52
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	487.446,66	1,76
6	Inbertsio errealak	750.000,00	2,71
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	26.135,65	0,09
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		27.696.407,22	100,00



24. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Oinarrizko ordainsariak	9.105.493,75
160.01	Gizarte-aseguruak	2.637.802,65
160.04	Elkarkidetza	100.361,52
162.04	Pertsonalaren bekak eta mediku-gastuak	28.522,29
163.01	Prestakuntza	14.000,00
1. kapituluaren guztizkoa		11.886.180,21
2. kapitulua		
201.01	Alokairu eta kanonak	587.261,59
211.01	Mantenimendu eta kontserbazioa	662.547,63
221.01	Hornidurak	843.019,20
221.99	Erosketak	143.893,67
224.01	Aseguru primak	335.673,56
225.01	Bestelako zergak	249.063,13
226.03	Publizitatea, propaganda eta erlazio publikoak	1.469.648,66
226.99	Beste zerbitzuak	9.625.097,71
227.05	Banku zerbitzu eta antzekoak	71.873,96
227.15	Profesional independenteen zerbitzuak	558.565,59
2. kapituluaren guztizkoa		14.546.644,70
4. kapitulua		
481.01.01	Asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak	366.824,58
481.01.02	Diru-laguntza hitzartuak	22.946,74
481.01.03	Diru-laguntza zuzenak	30.407,19
481.01.04	Diru-laguntza irekiak	67.268,15
4. kapituluaren guztizkoa		487.446,66
6. kapitulua		
	Eraikinak	218.457,56
	Biltegien berantolaketa	152.344,09
	Eraikinetako Instalazioak	130.017,40
	Ikus-entzunezko, antzerki e.a-ko ekipamenduak	6.850,00
	<i>Altzariak</i>	42.980,95
	<i>San Telmo museoko biduma</i>	50.000,00
	<i>Liburutegiak-Digitalizazioa eta Teknologia berriak</i>	26.000,00
	<i>Su artifizialentzako plataforma</i>	50.000,00
	<i>Ekipamendu Informatikoak eta programak</i>	38.350,00
	<i>Komunikazioa eta Irudia: Web orriak eta programak</i>	35.000,00
6. kapituluaren guztizkoa		750.000,00
8. kapitulua		
	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	26.135,65
8. kapituluaren guztizkoa		26.135,65
Guztira		28.411.407,22



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuak
Programación, Estudios y Presupuestos



25. taula: Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 300.01	Salgai Dالتها	160.500,00
I 340.01	Zerbitzugintza	4.140.274,55
I 390.01	Kudeaketako bestelako sarrerak	130.100,00
3. kapituluaren guztizkoa		4.430.874,55
4. kapitulua		
I 400.01	Estatuko diru-laguntza	68.000,00
I 410.01	Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza	449.500,00
I 420.01	Foru Aldundiko diru-laguntza	257.500,00
I 430.01.01	Donostiako Udalak emandako ekarpena (gastu arrunta)	20.186.959,32
I 430.01.02	Donostiako Udalak emandako Ekarpna (gastu arrunta) Hiriburutza 2016	799.468,07
I 471.01	Beste diru-laguntzak	228.500,00
	Lankidetz hitzarmenak entitate finantziarioekin	117.190,08
4. kapituluaren guztizkoa		22.107.117,47
5. kapitulua		
I 540.01	Alokairuak	406.640,00
I 560.01	Beste hainbat sarrera finantzierokak	1.775,20
5. kapituluaren guztizkoa		408.415,20
7. kapitulua		
I 730.01	Donostiako Udalak emandako Ekarpna (kapital-gastua)	750.000,00
7. kapituluaren guztizkoa		750.000,00
Guztira		27.696.407,22



6. Anoeta Kiroldegia, S.A.

Planteatzen ari da balitekeela 2016an estadioa birmoldatzeko lanak lehian atera eta egiten hastea. Hala eta guztiz ere, gaur egun kontu asko erabaki gabe daude, esku-hartze hori aurrekontuan planteatu baino lehen argitu behar direnak.

Hori dela-eta, honi erantsitako tauletan ikus daitekeenez, aurreko ekitaldikoaren antzeko aurrekontua aurkeztu da 2016rako, estadioaren birmoldaketari dagokiona izan ezik; izan ere, 2015ean 3.400.000 eurotan balioetsita zegoen esku-hartze hori, bai gastuaren kontu-sailean bai sarrerarenean.

Sarrerak

Anoeta Kiroldegiak instalazioak alokatuz lortzen ditu bere sarrera nagusiak: batetik, igerilekuak eta pistak Kiroletako Udal Patronatuari alokatzen dizkio, eta, bestetik, estadioko bulegoak Gipuzkoako Futbol Federazioari, Donostia Kulturari (Ernest Lluch kultur etxea), federazioei (Kirol Etxea) eta Real Sociedad SADi. Erakunde horien ohiko erabileraz gain, instalazioak (estadioa, barneko lokalak, lehendakaritza-palkoa) ohiz kanpoko ekitaldiak egiteko ere alokatu daitezke, kirol arlokoak zein bestelakoak (adibidez, enpresen produktuen aurkezpena, bazkari zein afariak egitea...). Estadioa erabiltzen duenak, alokairuaz gain, ekitaldiak egin bitartean sortzen diren gastu guzti-guztiak ordaindu behar ditu. Ez dirudi diferentzia handirik izango denik, nahiz eta, obrak hasiz gero, ekitaldi batzuk ezin izango diren egin; baina pentsatzekoa da hori urtearen bigarren erdialdean gertatuko dela.

Gastuak

Gastuek, 2015. urtekoekin alderatuta –ikus honi erantsitako koadroa–, aldaketa esanguratsu hauek dituzte:

- 1) Konpontze eta mantentze lanak. 50.000€ gutxiago 2015eko gastuen aldean, Paco Yoldi kiroldegiko pisten estalkia konpontzeko proiektua dela-eta.
- 2) Kanpoko Zerbitzu Ohikoak. Estadioa berritzeko kontratazio espedienteari lotuta kontratatu beharreko zerbitzu batzuetarako, “Zerbitzu profesionalak” kontzeptuak gora egingo du.
- 3) Langile gastuak. Sozietateko langile bakarrak plantillan jarraitzen du.



2016ko Aurrekontuaren Eranskinean, bai sarrerak bai gastuak zehazten dira, kapituluka.

Inbertsioak

Paco Yoldi udal kiroldegiko kirol pisten estalkian 400.000 € inbertitzea aurreikusten da, eta zoruko materiala aldatzeko, 120.000 €.

26. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Anoeta Kiroldegia, S.A.	974.130,75	100,00
Guztira	974.130,75	100,00



27. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	116.751,03	11,99
4	Transferentzia arruntak	55.959,28	5,74
5	Ondare-sarrerak	273.178,90	28,04
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	520.000,00	53,38
8	Finantza-aktiboak	8.241,54	0,85
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		974.130,75	100,00

28. taula: Anoeta Kiroldedia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	55.112,53	5,66
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	399.018,22	40,96
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	520.000,00	53,38
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		974.130,75	100,00



29. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	40.369,42
160.01	Gizarte-aseguruak	13.769,41
160.04	Elkarkidetza	973,70
	1. kapituluaren guztizkoa	55.112,53
2. kapitulua		
210.01	Konponketak eta artapena	52.688,64
221.01	Hornidurak	98.790,80
224.01	Aseguruak	22.807,48
225.01	Zergak	39.437,79
226.99	Beste hainbat gastu	6.510,04
227.99	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	178.783,47
	2. kapituluaren guztizkoa	399.018,22
6. kapitulua		
622.99.01	Paco Yoldi Kiroldegiaaren pistaren estalkia konpontzea	400.000,00
622.99.02	Paco Yoldi kiroldegiko pisten zorua konpontzea	120.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	520.000,00
Guztira		974.130,75



30. taula: Anoeta Kiroldegia, S.A. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 390.01	Hainbat diru-sarrera	116.751,03
	3. kapituluaren guztizkoa	116.751,03
4. kapitulua		
I 430.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (gastu arrunta)	55.959,28
	4. kapituluaren guztizkoa	55.959,28
5. kapitulua		
I 560.01	Intereses	30,00
I 540.01	Alokairuak	273.148,90
	5. kapituluaren guztizkoa	273.178,90
7. kapitulua		
I 730.99.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpina (kapital gastua)	520.000,00
	7. kapituluaren guztizkoa	520.000,00
8. kapitulua		
880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	8.241,54
	8. kapituluaren guztizkoa	8.241,54
Guztira		974.130,75



7. Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.

7.1. Zerbitzua, kalitatea eta bezeroaren arreta hobetzea.

Dbusek garraio publikoa hobetzen eta sustatzen jarraituko du. 28-Amara-Ospitaleak linean, 5-Benta Berri linean eta 13-Altza linean urtero UNE 13816 arauaren kalitate ziurtagiria izateko lan egingo du.

Bezeroaren arreta hobetzeko politikarekin jarraituko du, eta autobusaren erabilera sustatzeko kanpainak egiten ere jarraituko du.

7.2. Ingurumena: autobus ekologikoak eta irisgarriak

2016 urtean %100 elektrikoak diren 12 metroko 2 autobus erosketa esleituko da. Europako Batzordeak finantzatzen duen Replicate proiektuaren baitan egingo da erosketa hori.

Era berean, Dbusek autobus eta mikrobusen flota berritzeko prozesuarekin jarraituko du 2016an, hauek erosita:

- » 12 metroko sei autobus hibrido.
- » 18 metroko bi autobus artikulatu.
- » EURO 6 teknologiako mikrobus bat.

Ibilgailu horiek guztiek iraunkortasunaren irizpideak betetzen dituzte, eta erregai kontsumoa, kutsatzaileen igorpena eta igorpen akustikoen murrizketarenak ere bai. (autobus elektrikoak, %100eko murrizketa; autobus hibridoak, %30eko murrizketa)

Ibilgailu horiek erosotasun eta kalitaterik handiena izango dute: aire egokitua izango dute, behe zorua, arrapala elektrikoa aulki gurpildunak sartzeko, informaziorako monitoreak, eta aulki gurpildunetarako eta mugikortasun urria duten pertsonentzat gordetako lekuak.

2016an, halaber, Dbuseko flotaren %100 irisgarria eta iraunkorra izango da (%100 elektrikoak diren 3 autobus egongo dira zirkulazioan eta, horiez gain. 16 autobus hibrido ere bai)



Zentzu horretan, Dbus izango da flotarik ekologikoena duen Hiri Garraio Publikoko autobus enpresa Euskadin. Eta horretaz aparte, ingurumena gehien errespetatzen duten Hiri Garraioko enpresetako bat ere izango da Estatuan.

7.3. Tarifa sistema

2016ko apirilean indarrean sartuko da Gipuzkoako garraio publikoko operadore guztien Tarifa Bateratuak gaur egun duen tarifa sistemaren aldaketa. Horrenbestez, hauek izango dira Dbuseko tarifak:

- » Ordainketa Mugi Txartelarekin eginda:
 - » 1 Ibiltarte Arrunta 1-20 bidaia: 0,93 € bidaiaiko
 - » 2 Ibiltarte Arrunta 21-50 bidaia: 0,74 € bidaiaiko
 - » Hilabete berean 51. bidaiatik aurrera: 0,17 €
- » Noizbehinkako Bidai txartela (paperezkoa): 1,70 € bidaiaiko
- » Gauekoa (berezia): 2,10 € bidaiaiko

7.4. Langileria eta antolaketa.

Bereziki prestakuntza planei emango zaie garrantzia, bai eta langile guztiak enpresaren helburuekin inplikatzeari ere. Prestakuntza ikastaroak egingo dira arlo hauetan:

- » Tailerreko prestakuntza teknikoa.
- » Giza harremanak gidariaren postuan.
- » Arrisku psikosozialak.
- » Gidatze ekonomiko, ekologiko eta eraginkorra: autobus elektrikoak eta hibridoak.
- » Ofimatika.
- » Euskara.
- » Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria (GPE)
- » “BAT-BARIK-MUGI” Interoperabilitaterako Proiekturako makina berriaren gaineko prestakuntza espezifikoa.
- » Prebentzioari buruzko eta istripu bat gertatzen denean nola jardun ikasteko ikastaroa.



Gogotik egingo da lan langileen osasuna hobetzeko eta lan absentismoa murrizteko. Horretarako, honela jardungo da:

- » Mediku zerbitzua hobetuko da.
- » Mutua Medikoarekin koordinatuta prebentzio ekintzak egingo dira.
- » Mediku azterketak hobetuko dira.
- » Mutualitateari lagunduko zaio lan osasuna hobetzen.
- » Iruzurra kontrolatuko da.
- » Ezgaitasunak kudeatuko dira.

Antolaketa arloz arlo aztertuko da, antolaketan eta oro har langile guztien artean hobekuntzak izateko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Euskara plana garatzen jarraituko da, konpainiako langileak euskaraz ere komunikatzeko gai izan daitezen, eta, hala, Dbusen zerbitzuak erabiltzen dituztenek euskaraz hitz egiteko modua izan dezaten zerbitzu horiek erabiltzen dituztenean.

Ildo horretatik, konpainian euskara ahoz eta idatziz erabiltzeko lan egingo da, bai eta langileak motibatzeko ere, euskaraz gehiago jakin dezaten eta hizkuntza ikasi eta elkarren artean erabil dezaten.

Halaber, giza baliabideak hobetzeko plan integrala garatzen jarraituko da. Besteak beste, ekintza hauek aurreikusi dira:

- » Langilearen Ataria erabiltzea, enpresarekin etengabe komunikatuta egoteko bide gisa.
- » Web orriko “Langileen Gunea”-a sustatzea. Atal horretan, besteak beste, izendapen eta albiste interesgarrien berri ematen zaio langileari, eta gainera langileak gestio administratiboak egin ditzake.
- » Dbusen ohiko hornitzaileekin langileentzako deskontu politikak negoziatzea.
- » Langileen gogobetetze maila neurtzeko inkesta egitea.
- » Langileen etengabeko ebaluazioa egitea.
- » Zirkularrak argitaratzea eta langileen artean zabaltzea.
- » Enpresa Zuzendaritzaren eta langileen arteko bilerak.



- » Langileentzat aldizkari-newsletterra, Dbusen jarduketa interesgarrien gaineko informazioarekin.

7.5. Berrikuntza

Dbusek buruan egoten jarraituko du teknologia berrien aplikazioari dagokionez, erabiltzaileen zerbitzua hobetzeko eta barne kudeaketa optimizatzeko.

Garatuko diren hobekuntza teknologiko batzuk hauek izango dira:

- » SAE garatzen jarraituko da, funtzionalitate berriekin. Geltokietako informazio panelen sarea zabalduko da.
- » www.dbus.eus webgunea eguneratzen jarraituko da, eta sare sozialetan duen presentzia areagotuko da. Era berean, aztertuko da App-aren bertsio bat abian jartzea.
- » Teknologia berrien erabilera bultzatuko da, autobusak eta ordutegiak planifikatzeko sistemak optimizatzeko eta gidariei horien berri hobeto emateko.
- » Esperientzia pilotu bat jarriko da abian, banku txartelen bidez kontakturik gabeko ordainketa egiteko.
- » Interoperabilitate proiektu pilotua abian jartzea, Dbuseko autobus flotan “BAT-BARIK-MUGI” txarteekin ordaindu ahal izateko.
- » Gaur egun Dbusek dituen autobusetan Start/Stop sistema jarri eta autobusak eraldatzeko esperientzia pilotua abian jartzea. Sistema horrekin, kutsatzaileen igorpenak, gasolio kontsumoa eta igorpen akustikoak murriztuko lirateke.

Proiektu horien helburua da Garraio Publikoan neurri berritzaileak hartzea, gizartearentzat hobekuntza energetikoa sortzeko eta Garraio Publikoaren eraginkortasun handiagoa.

Gainera, Dbusek, Europako beste hiri batzuekin batera, Europak finantzaturako “EBSF-2” eta “REPLICATE” proiektuetan parte hartuko du, bai eta Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerioak finantzaturako “MANBUS” proiektuan ere.



Lanean arituko gara G+B Proiektu berriak Berrikuntza teknologikoaren inguruko “Horizon 2020” europar programara aurkezteko.

7.6. Komunikazio eta benchmarking ekintzak egingo ditu.

Helburu garrantzitsua da donostiarren artean irudia hobetzea eta hobekuntza horrek erabiltzaileen kopurua igotzeko balio izatea. Marketin eta Komunikazio Departamentuak marketin jarduerak bultzatuko ditu eta Dbusek donostiarrek konpainia hobeto ezagutu dezaten egin duen lanaren berri emango du.

Dibulgazio kanpainak egingo dira gazteei Garraio Publikoaren berri emateko, eta, horretarako, ikastetxeei Dbuseko instalazioak bisitatzeko aukera emango zaie.

Konpainiaren 130. urteurrenaren ospakizunaren inguruko kanpaina bat egingo da. Kanpainak hiru ardatz nagusi izango ditu: Konpainiaren bilakaera, Dbusen egunerokoa, eta Dbusek hiria gero eta iraunkorragoa izan dadin egiten duena. Hiru ardatzetako bakoitza azpimarratzeko, ekintzak egingo dira, esaterako lehiaketak, irudi grafiko eta ikus-entzunezkoen kanpainak, tailerrak eta Kotxetegietara bisitak adin guztietako pertsonentzat.

Autobusetako ikus-entzunezko komunikaziorako kanala bultzatuko da informaziorako eta entretenimendurako bide gisa, bai eta Dbusen jardueren berri emateko bide gisa ere.

Telefono bidez, posta elektronikoko bidez, webgunearen eta sare sozialen bidez erabiltzaileekin zuzenean komunikatzea bultzatuko da, komunikazio zuzen hori indartzeko ekimenak garatuta, eta etengabe komunikazioan egoteari arreta berezia eginez.

31. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.	34.974.052,43	100,00
Guztira	34.974.052,43	100,00



32. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	20.240.945,20	57,87
4	Transferentzia arruntak	13.986.417,23	39,99
5	Ondare-sarrerak	500,00	0,00
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	459.681,00	1,31
8	Finantza-aktiboak	286.509,00	0,82
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		34.974.052,43	100,00

33. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	24.498.523,76	70,05
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	7.782.289,67	22,25
3	Finantza-gastuak	750,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	2.692.489,00	7,70
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		34.974.052,43	100,00



34. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	17.444.800,75
160.01	Gizarte-aseguruak	6.159.417,61
161.03	Kalte-ordainak	450.653,40
161.04	Beste gizarte-gastuak	443.652,00
	1. kapituluaren guztizkoa	24.498.523,76
2. kapitulua		
203.02	Renting	747.554,36
210.01	Konponketak eta artapena	1.411.029,31
220.03	Software garapena eta mantenimendua	46.389,71
221.01	Hornidurak: ura, argi-indarra eta gasa	116.827,70
221.11	Hornidurak: erregaiak, pneumatikoak, ganberak, ordezeko piezak, olioak, koipeak, bateriak...	4.054.852,71
221.99	Bestelako hornidurak	428.543,76
223.01	Garraioak	7.000,00
224.02	Aseguru primak	788.052,12
225.02	Zergak	39.000,00
226.03	Publizitatea	18.000,00
227.15	Zerbitzu profesional independenteak	125.040,00
	2. kapituluaren guztizkoa	7.782.289,67
3. kapitulua		
369.01	Finantza-gastuak	750,00
	3. kapituluaren guztizkoa	750,00
6. kapitulua		
623.01	mikrobusa EURO 6	138.889,00
623.01	12 metroko 6 autobus hibrido	1.488.600,00
623.01	18 metroko 2 autobusa	605.000,00
623.02	Makina saltzaileak	400.000,00
64	Berrikuntza teknologikoko programetan inbertsioak	30.000,00
62	Hainbat (Erremintak, altzariak, ekipamendu informatikoak)	30.000,00
	6. kapituluaren guztizkoa	2.692.489,00
Guztira		34.974.052,43



35. taula: Donostiako Tranbia Konpainia, S.A. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 310.19	Jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak	18.648.660,00
I 390.01	Hainbat diru-sarrera	1.592.285,20
	3. kapituluaren guztizkoa	20.240.945,20
4. kapitulua		
I 430.01	Donostiako Udalak emandako diru-ekarpena (gastu arrunta)	13.886.050,73
I 480.01	Beste diru-laguntzak	100.366,50
	4. kapituluaren guztizkoa	13.986.417,23
5. kapitulua		
I 560.01	Kontu korronteko interesak	500,00
	5. kapituluaren guztizkoa	500,00
7. kapitulua		
I 710.99	BAT-BARIK-MUGI proiekturako EJ dirulaguntza	200.000,00
I 793.01	EBSF-2 proiekturako dirulaguntza. Etorkizuneko europear autobusak	47.367,00
I 793.01	Isuri kutsakorren murrizpenerako eta flota berritzeko programen diru-laguntza	212.314,00
	7. kapituluaren guztizkoa	459.681,00
8. kapitulua		
880.01	Defizit edo superabitaren ondorioz aurrekontua orekatzeko eragiketak	286.509,00
	8. kapituluaren guztizkoa	286.509,00
Guztira		34.974.052,43



8. Donostia Turismo, S.A.

2012-2016rako Turismoko Gida Planak argiro identifikatzen ditu erakundearen Eginkizuna eta Ikuspegia.

8.1. Eginkizuna

“Donostia Turismoa” sozietatea hiriko turismoaren aupadak eta helburu estrategikoak zuzentzeko tresna da.

Turismoak garapen ekonomikoaren motorra izan behar du, beste sektore dinamiko batzuekin sinergian, hiriaren eta lurraldearen ongizatea eta oparotasuna handiagotzeko, eta Donostiaren “egiten jakitea” eta sormenerako gaitasuna proiektatzeko eremurik pribilegiatuenetako bat da funtsezko balioak bateragarri egiteko, hala nola errespetua, harrera, bizikidetza, eta nortasuna; hori guztia ekintzailetasunez eta etorkizunerako ikuspegi handinahiarekin.

8.2. Ikuspegia

Datozen urteetarako, hiriaren ikuspegi hau zehaztu da:

Donostia turismoaren euskal hiria da, irekia eta kosmopolita, Europako proiektzioa duena; bikaintasunaren liderra eta erreferentzia da sormenean eta garapen orekatuan eta harmonikoan oinarritutako ereduarekin.

8.3. Aupada estrategikoak

Sozietateak Turismoko Gida Plana jatorria duten aupada estrategiko hauei eusten die:

- 1) Sormenaren eta bikaintasunaren ardatzetan oinarrituta turismogune gisa kokatzea.
- 2) Turismoaren garapen orekatua lortzea.



- 3) Nazioarteko merkatuetan Donostiaren sona areagotzea.

8.4. Jardun plana

2016rako Jardun Plana hobeto ulertzeko, hiru jarduera esparru nagusi hauetan dago egituratuta:

8.4.1. Aisia turismoaren kudeaketa

Sustapenaren eta marketinaren arloan, 2016rako jardunaren ardatz nagusia hau da:

DONOSTIA / 2016ko EUROPAKO KULTUR HIRIBURUTZA

Sektore horretan, Donostia Turismoa sozietatearen helburu nagusiak hauek dira:

- 1) Turismoa urtaro guztietara zabaltzea.
- 2) Arreta turistikoko zerbitzuaren esperientzia hobetzea (online eta offline).
- 3) Hiri markaren posizionatzea nazioartean areagotzea, Donostia San Sebastián 2016 markari esker.

Helburu zehatz hauekin:

- a) Denboraldiz kanpo hirira turista gehiago etortzea.
- b) Haien egonaldia luzatzea.
- c) Hirian gastua areagotzea.

Sustapen tresnak:

- a) Azokak (azken publikoa / publiko profesionala) eta work shop-ak.
- b) Press trip-ak.
- c) Fam trip-ak (agenteak).
- d) Online publizitate kanpainak / Online posizionatze estrategia.
- e) Offline publizitate ekintzak.

Merkatuak

Helmugari buruz duten ezagutzaren arabera lantzen dira merkatuak, sustapeneko hainbat produktu eta estrategiarekin.

- a) Estatuko merkaturako estrategia.
- b) Nazioarteko 1. merkaturako (Frantzia) estrategia.
- c) Europako herrialdeetarako estrategia: UK, Alemania, Holanda, Norvegia, Suedia.



d) Interesa duten urrutiko merkatuetarako estrategia: USA, Kanada, Japonia, Australia.

Produktuak

Posizionatzea eta komunikazioak ardatz dituzten produktu nagusiak. Kontzeptua: Donostia CITY BREAK.

- a) D-SS, 2016ko Europako Kultur Hiriburua (jaialdien hiriari lotuta – Basque culture).
- b) D-SS, hiriburu gastronomikoa.
- c) D-SS, Romantic City-Premium.
- d) D-SS, Sport City.
- e) Mice City.

Ekintzak:

- a) Denboraldiz kanpokoko sustapenaren estrategian sakontzea.
- b) HELMUGAn kontsumitzen diren produktuen eskaintza areagotzea.
- c) Produktuen irisgarritasuna hobetzea, merkaturatzea.
- d) Arreta zerbitzuaren orduak eta guneak zabaltzea.
- e) Merkaturatzeko tresna berriak proposatzea.
- f) Online kanalaren aldeko estrategia irmoa.

Aisia Turismoaren Kudeaketa	
Gastua	723.421,00
Sarrera	371.000,00

8.4.2 Negozio turismoaren kudeaketa

Xedea da Donostia helmuga gisa posizionatzea negozio turismoarentzat. Zehazki, hauek dira helburuak:

- » Negozio turistak erakartzea modu jasangarrian.
- » Urtaro guztietara zabaltzea.
- » Helmugaren azpiegiturak eta baliabideak aprobetxatzea.
- » Negozio turistaren egonaldiak haren beharrak eta itxaropenak bete ditzan lortzea.



- » Jardunak

Sustapen plana

Toki mailan

- » Toki preskribatzaileak bilatzea (biltzarrak/konbentzioak).
- » Ekintzak ospitaletan, unibertsitateetan eta/edo ikerketa zentroetan.
- » Merkataritza bisitak tokiko berritzegune eta enpresetara.
- » “Enbaxadore” programa garatzea.
- » Hautagaitzei laguntza ematea (ekonomikoa eta logistikoa).
- » Kirol ekitaldiak erakartzeko/sortzeko laguntza ematea.

Estatu mailan

- » Merkataritza bisitak konbentzioen antolatzaileei.
- » Merkatuko ekintza: Madril, Bartzelona, Bordele eta Tolosako konbentzioak.
- » Ikuskapen bisitak.
- » Workshop-ak.

Nazioarteko mailan

- » Workshop-etara bertaratzea intereseko merkatuetan (SCB, ICCA, M&I...).
- » Harremanak nazioarteko turismo bulegoekin.
- » Azoka espezializatueta bertaratzea (EIBTM, SO EVENEMENT, IMEX...).
- » Aliatuekin loturak estutzea baterako ekintzetarako.

Erakartze estrategia

- » Kirol elkarteak eta antzeko erakundeak dinamizatzea, ekitaldiak erakarri eta sortzeko.
- » Biltzar, konbentzio eta pizgarrien antolatzaile potentzialen kontaktuak bilatu eta aztertze tresnak hobetzea.
- » Ekitaldiak ospatzeko egoitza gisa Donostia sustatzeko materiala etengabe hobetzea/egokitzea.
- » Tipologia guztietarako hautagaitzaren dosierra etengabe hobetzea/egokitzea.
- » Ikuskapen bisitak sustatzea, erakartze tresna gisa.
- » Intereseko agenteak ohitzeko bidaiak antolatzea / lankidetzan aritzea.
- » Weben eguneratzea.



» Hedabideetako komunikazio plana.

Merkatuak

- 1) Estatuko merkaturako estrategia.
- 2) Nazioarteko 1. merkaturako (Frantzia) estrategia.
- 3) Europako herrialdeetarako estrategia: UK, Alemania, Herbehereak, Eskandinavia.
- 4) Interesa duten urrutiko merkatuetarako estrategia: USA.

2016rako lan ildo berriak

- 1) Partaidetza handiagoa sustapen jardueretan, helmugaren posizionatzea baliatzeko.
- 2) Maila tokikoan, nazionalean eta nazioartekoan merkataritza bisitak areagotzea.
- 3) Biltzarren datu base berria. Baieztatutako ekitaldien eta aurkeztutako hautagaitzen egutegi berria.
- 4) Tamaina txikiko/ertaineko ekitaldiei laguntzeko ildo berria.
- 5) Stand bereziarekin biltzarretan agertzea.

Negozio Turismoaren Kudeaketa	
Gastua	251.000,00
Sarrera	7.000,00

8.4.3 Helmugaren kudeaketa turistikoa

Aurten, esparru honetako jardunak 2016ko HARRERA TURISTIKORAKO PLANA inplementatzea izango du ardatz. Horren helburua da bisitariari harrera egiteko sistema bat abian jarri eta garatzea, esperientzia turistikoa bikaintasuna ziurtatzeko eta bertako biztanleen bizi baldintzak hobetzeko.

Planaren asmoa da harrera turistikoa alderdi guztietan esku hartzea: azpiegiturak egokitu, mugikortasun turistikoa diseinatu eta toki sistemen (TAO, DBUS, etab.) erabateko irisgarritasuna lortzetik hasita, informazio turistikoko sistema bera hobetzera iritsi arte. Azpiegituren ikuspegitik egungo harrera sistemaren inguruan iaz egindako diagnostikoaren ondoren, identifikatutako Hobekuntza Plana inplementatuko da, Udaleko Mugikortasun Departamentuarekin eta gailen eskumena duten gainerako erakundeekin lankidetzan.



Bestalde, tokiko enpresen eta agenteen lehiakortasun hobetzea helburu duten jardunetan lan egingo da, lehiakortasun eredu turistikoetan oinarrituta (SICTED; Anfitorioak, etc.). Horiek, funtsean, bi lan ildo nagusi hauek jasotzen dituzte:

- » **Sektore kritikoetarako jardunbide egokien eskuliburuak implementatu eta hedatzea:** ostatua, ostalaritza, merkataritza, garraioa, zerbitzu kulturalak eta aisiakoak, eta udal zerbitzu publikoak (aurreko puntuan aipatutakoak).
- » **Berariazko prestakuntza** sektore bakoitzean.

Gainera, honako jardunetan lanean jarraituko dugu:

Jardunak

- 1) Tokiko agenteekin / bazkideekin lan egitea
 - » Enpresa elkartuetarako jardun plana.
 - » Helmugako Kalitate Turistikoaren Sistema Integrala programa.
 - » IKTetako Jardunbide Egokiak programa.
- 2) Helmuga ezagutzea
 - » Helmuga ezagutzeko sistematika.
 - » Helmugako inkesta.
 - » Hainbat adierazle: kexak, iradokizunak, azterketak, etab.
 - » Turismoaren Behategia ustiatzea.
- 3) Mugikortasuna/irisgarritasuna

Mugikortasuna hobetzeko jardunak: seinaleztapen turistikoa, garraio turistikoaren arautzea, etab.

Mugikortasun Turistikoaren Mahaia garatzea.

Helmugaren kudeaketa turistikoa	
Gastua	174.016,00
Sarrera (enpresa elkartuen kuotak)	185.000,00

8.4.4 Pertsonen kudeaketa

Helburua da Donostia Turismoko giza taldea ahalik eta eraginkortasun handienaz kudeatzea eta, aldi berean, pertsonak gogobeteta egotea euren lanaren jardunean.



Aurten, Arreta Zerbitzuan diharduen pertsonala oso nabarmen areagotzea aurreikusi da, Europako Hiriburutzaren programa garatzearen ondorioz.

Pertsonen kudeaketa	
Soldatak	1.301.438,78
Gizarte Segurantzza	415.731,51
Bestelako sozietate gastuak	17.294,21

36. taula: Donostia Turismo, S.A.ren programa osagaiak

Programa osagaiak	Zenbatekoa	%
Donostia Turismo, S.A.	3.302.401,50	100,00
Guztira	3.302.401,50	100,00



37. taula: Donostia Turismo, S.A.ren diru-sarreraren ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Zuzeneko zergak	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00
3	Tasak eta bestelako zergak	563.900,00	17,08
4	Transferentzia arruntak	2.680.795,42	81,18
5	Ondare-sarrerak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0,00	0,00
7	Kapital-transferentziak	57.706,08	1,75
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		3.302.401,50	100,00

38. taula: Donostia Turismo, S.A.ren gastuen ekonomi balioztapena

Kapitulua	Deskribapena	Zenbatekoa	%
1	Pertsonal-gastuak	1.743.464,50	52,79
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.481.437,00	44,86
3	Finantza-gastuak	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	0,00	0,00
6	Inbertsio errealak	77.500,00	2,35
7	Kapital-transferentziak	0,00	0,00
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00
9	Finantza-pasiboak	0,00	0,00
Guztira		3.302.401,50	100,00



39. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Gastuen azalpena

Kontusaila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
1. kapitulua		
130.01	Langileen ordainsariak	1.310.438,78
160.01	Gizarte-aseguruak	415.731,51
160.04	Bestelako gizarte-gastuak	17.294,21
	1. kapituluaren guztizkoa	1.743.464,50
3. kapitulua		
201.01	Alokaituak	125.500,00
210.01	Konponketak eta artapen orokorrak	29.300,00
220.01	Bulegoko materiala	15.470,00
221.01	Elektrizitatea, ura eta gasaren hornidurak	15.730,00
223.00	Posta zerbitzua argitapenen bidalketa	6.000,00
223.01	Garraio gastuak	7.000,00
224.01	Primas de seguros	15.000,00
226.02.01	Gestión del destino	182.016,00
226.02.02	Turismo Aisia	723.421,00
226.02.03	Turismo Negozioa	251.000,00
227.01	Garbitzeko produktoak	33.000,00
227.15	Kanpoko profesionalen zerbitzuak	78.000,00
	3. kapituluaren guztizkoa	1.481.437,00
6. kapitulua		
64	Turismoa sustatzeko bideoa	12.706,08
626	Kongresuen hautagaiarako Datu Basearen programa	15.000,00
626	Informatik ekipoak	10.000,00
626	Barne kudeaketarako agindu koadroaren programa	20.000,00
643.01	ON LINE denda. Web orriko produktuen salmenta	19.793,92
	6. kapituluaren guztizkoa	77.500,00
Guztira		3.302.401,50



40. taula: Donostia Turismo, S.A. Orokorra. Diru-sarreraren azalpena

Kontusaila	Diru-sarreraren azalpena	Zenbatekoa
3. kapitulua		
I 390.01	Hainbat diru-sarrera	563.900,00
	3. kapituluaren guztizkoa	563.900,00
4. kapitulua		
I 410.01	Eusko Jaurlaritzak emandako diru-ekarpena	219.000,00
I 420.01	Foru Aldundiak emandako diru-ekarpena	100.000,00
I 430.01	Donostiako Udalak emandako ekarpena (gastu arrunta)	1.731.542,14
I 430.02	Donostiako Udalak emandako ekarpena (gastu arrunta) Hiriburutza 2016	630.253,28
	4. kapituluaren guztizkoa	2.680.795,42
7. kapitulua		
I 730.01	Donostiako Udalak emandako ekarpena (kapital gastua)	57.706,08
	7. kapituluaren guztizkoa	57.706,08
Guztira		3.302.401,50